Gipuzkoako Foru Ogasunak, aurreko ekitaldian bezala, bere jardunaren urteko txostena aurkezten du orri hauetan. Gipuzkoako herritarrek, Ogasunarekin harremanak dituzten zergadunek, gizarte eragileek, beste herri administrazioek eta, oro har, Gipuzkoako zerga gaitan interesaturik dagoen edozeinek jardun horren berri izatea du helburu txosten honek. Azken urteotan egin izan denez, zergei buruzko estatistikei testu bat erantsi zaie magnitude tributario desberdinak perspektiba historiko batean koka daitezen; horrek, bide batez, interpretazio gida bat eskaintzen du zergen analisi ohikoenen ildoari jarraiki. Txosten honen edukia bi zatitan banatzen da.

... lehen zatian zerga nagusiak aztertzen dira (PFEZ, Ondarea, Sozietateak eta BEZ)...

Lehen zatian zerga nagusiak aztertzen dira: PFEZ, Ondarea, Sozietateak eta BEZ. Aurreneko hiruen kasuan, hau da, zuzeneko zergen kasuan, erreferentzia urtea 1999ko ekitaldia da. Zerga horien aldagai ekonomikoak euren sortzapena gertatzen den ekitaldiari dagozkio, eta aitorpena 2000ko ekitaldia aurreratuta dagoenean egiten da. BEZren kasuan, berriz, ekitaldi baten aitorpena hurrengo urteko urtarrilean egiten da; gainera, horri gehitzen bazaio aitorpena betetzeko behar diren datuak ez direla zuzeneko zergetan bezain konplexuak, aurreko urteko datu fiskalak ekitaldiko lehen hiru hilabeteetan eskura daitezke. Eman beharreko datuak direla-eta, hemen aztertu diren magnitudeak aldatu egiten dira zerga batetik bestera; guztiarekin ere, oro har guk honako hauek hartu ditugu aztergai: aitorpenen bilakaera, aitorzaileen tipologia, oinarri ezargarri eta likidagarriaren osagaiak, kenkariak, kuota likidoaren emaitza eta, azkenik, konturako ordainketak. Gainera, zerga bakoitzean aspekturik bereizgarri edo garrantzitsuenak aipatu dira. Aukera izan denean zergei buruzko datuen banaketa espazial eta sektoriala egin da: lehen kasuan, eskualdeen arabera eta, bigarrenean, jarduera adarren arabera.

... bigarren zatian GFaren finantza eta zerga jardueraren berri ematen da...

Txostenaren bigarren zatian deskribaturik azaltzen da nolakoa izan den Foru Ogasunaren finantza eta zerga jarduera 2000ko ekitaldian. Alde batetik, Zerga Administrazioak berezkoak dituen jardueren adierazle ekonomiko nagusiak jaso dira (Ikuskaritza eta Zergabilketa lanarenak), bai eta Auzitegi Ekonomiko-administratiboaren espedienteei dagozkienak edo Lege Aholkularitzarenak ere. Bestetik, eta ikuspegi finantzarioago batetik begiratuta, zergabilketaren emaitzak aztertu dira zergen arabera eta zerga taldeen arabera. Azkenik, eta modu orokorrago batez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduera aztertu da sarrera, gastu eta defizitaren ikuspegitik; horretarako, metodologian definituta dauden kontu publikoak hartu dira kontuan, beti ere Europako Kontuen Sistema (EKS) Gipuzkoako Administrazioan dagoen errealitatera egokitu ondoren.

0.- INTRODUCCIÓN

Informe relativo a la Hacienda Foral de Gipuzkoa del ejercicio 2000 dividido en dos partes ...

La Hacienda Foral de Gipuzkoa presenta, al igual que en los ejercicios precedentes, el informe anual de sus actividades para conocimiento de los ciudadanos guipuzcoanos, de los contribuyentes que se relacionan con ella, de los agentes sociales, de otras administraciones públicas y, en general, de cualquier interesado en materia tributaria del Territorio. Como viene siendo habitual en los últimos años, las estadísticas tributarias van acompañadas de un texto con el que se pretende situar las magnitudes tributarias en un perspectiva histórica a la vez que se aporta una guía de interpretación en la línea de los análisis tributarios más extendidos. El contenido de este informe se distribuye en dos partes.

... en la primera se recogen análisis de los principales impuestos (IRPF, Patrimonio, Sociedades e IVA) ...

En la primera parte se incluyen los análisis de las principales figuras tributarias: IRPF, Patrimonio, Sociedades e IVA. En el caso de los tres primeros, es decir en el de los impuestos directos, el periodo de referencia es el ejercicio 1999. Las variables económicas de dichos impuestos se refieren al ejercicio en el que se fija su devengo mientras que la declaración se realiza bien entrado el ejercicio 2000. En el caso del IVA, la declaración de un ejercicio se realiza en el mes de enero del año siguiente lo que, unido al hecho de que los datos requeridos para su cumplimentación son más sencillos que en los impuestos directos, hacen que sea posible disponer durante el primer trimestre de un ejercicio de los datos fiscales del año anterior. Las magnitudes que se estudian varían de un impuesto a otro debido a los datos a cumplimentar pero como norma nos fijaremos en la evolución de las declaraciones, tipología de los declarantes, en los componentes de la base imponible o liquidable, en las diferentes deducciones y en el resultado de la cuota líquida además de los pagos a cuenta. Además, en cada impuesto se recogen aquellos aspectos más específicos o que resulten relevantes. En la medida de lo posible se desagregan los datos fiscales espacial y sectorialmente: en comarcas en el primer caso y por ramas de actividad en el segundo.

... en la segunda se da cuenta de la actividad de la Administración financiera y tributaria de la DFG ...

En la segunda parte del informe se describe la actividad financiera y tributaria de la Hacienda Foral desarrollada a lo largo del ejercicio de 2000. Por un lado se recogen los principales indicadores económicos de las actividades propias de la Administración Tributaria como los relativos a la Inspección y la Gestión Recaudatoria o indicadores de expedientes como los del Tribunal Económico-administrativo o los de la propia Asesoría Jurídica. En un plano más financiero se aborda el análisis de los resultados de la Recaudación por impuestos y por grupos de éstos. Por último, desde una perspectiva más general se abarca la actividad de la Diputación Foral de Gipuzkoa en su vertiente financiera de ingresos y gastos y de déficit como resultado, dentro del marco de cuentas públicas definidas en la metodología, con las lógicas adaptaciones a la realidad de la Administración guipuzcoana, del Sistema Europeo de Cuentas (SEC).

... bi apendizetatu:
udal estatistikak eta
zergei buruzko
xedapenak.

Liburuaren bukaeran bi apendizetatu daude. Lehenengoan udal estatistikak ageri dira eta informazioa jasotzen dute udal zergei buruz, udal eta beste ente lokaletako aurrekontuei buruz nahiz Errenta Zergak udalez udal izan dituen magnitude nagusiei buruz. Bigarren apendizetatuak 2000ko ekitaldian zergen inguruan argitaratu diren xedapen nagusiak jasotzen ditu.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

1999ko PFEZn
aurkeztu diren
291.218 aitorpenak
araudi berriaren
menpe egin dira eta
beste ziklo bat hasi
dute.

1999ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergagatik 291.218 aitorpen aurkeztu dira 2000ko kanpainan, eta lehenak dira abenduaren 24ko 8/1998 Foru Araua indarrean sartu zenetik. Oro har esan daiteke arau horrek bere osoan berritu duela zerga hau eta aldaketa garrantzitsuak ekarri dizkiola bere egiturari. Besteak beste, kontzeptu hauek aldatu dira: lan errentei aplikatzen zaizkien hobaria eta kenkaria, ohiko etxebizitzagatik tributatzeko era, etekin irregularrak konputatu eta integratzeko modua, zergaren tarifa, kenkari gehienak eta aitortzeko obligazioari ezarritako mugak.

Aitorpen arruntak
lehenengo aldiz
nagusitu zaizkie
mekanizatuei, eta
heren bat baino
gehiago telematikoak
izan dira.

Aurkeztutako aitorpen kopurua aurreko urtekoa baino txikiagoa izan da (1998an baino %5,3 gutxiago), aitortzeko obligazioaren mugak aldatzearen ondorioz batik bat. Aldiz, tributatzeko modalitateari dagokionez, bide arrunta aukeratu duten zergadunek gora egin dute berriz ere aitorpen mekanizatuen kaltetan, eta hauek lehen aldiz jaitsi dira ekitaldi honetan. Aitorpen arruntan pisu erlatiboa igo egin da bide telematikoak ikaragarri zabaldu delako ezarria izan zenetik (bide hori 112.360 aitorpenetan erabili da).

Lanaren etekinak
aitortutako
errentaren oinarri
nagusi dira;...

Zergaren egituran aldaketak izan badira ere, besteren konturako lanaren etekinak aitortutako oinarri ezargarriaren %75 baino gehiago dira berriz ere. Portzentaje hori lanaren hobariak orokorrean izan duen gehikuntzagatik gertatu da 1998koa baino txikiagoa. Horien atzetik, baina oso alde handiz, jarduera enpresarial eta profesionaletatik datozen errentak ageri dira (oinarri likidagarriaren %11,7).

... aldiz, kapitalaren
etekinek pisua irabazi
dute ondare
gehikuntzen kaltetan.

Kapital higikorrek %5,1 hartzen du, eta ondare irabazi eta galerek %3,6. Kapital higiezina, bere aldetik, oinarri likidagarriaren %2,3 da, 1998an baino 1,8 puntu gehiago ohiko etxebizitzari ematen zaion tratamendua aldatzearen ondorioz.

27.001 milioi pezetako
kenkariak egin dira
guztira, eta gehienak
kenkari familiar eta
pertsonalak dira...

Kuotako kenkarietan aldaketa garrantzitsuak sartu dira. Izan ere, batzuk desagertzeaz gainera, beste batzuek aldaketa nabarmenak izan dituzte, eta eskema bera ere berritu egin da sei talde desberdin ezarritan. 1999an 27.001 milioi pezetako kenkariak egin dira guztira, eta horietatik 10.563 milioi (kopuru osoaren %39,1) kenkari familiar eta pertsonalak izan dira. Kopuru horrek %25,8ko igoera dakar aurreko urtearen aldean, eta ondorengo ahaideen

... con dos apéndices: estadísticas municipales y disposiciones tributarias.

Las 291.218 declaraciones de IRPF de 1999 inician un ciclo bajo nueva normativa.

Por primera vez las mecanizadas han sido superadas por las ordinarias, siendo más de un tercio telemáticas.

Los rendimientos de trabajo son la base fundamental de la renta declarada ...

... mientras los rendimientos de capital recuperan peso frente a los incrementos patrimoniales.

De los 27.001 millones de deducciones la mayor parte corresponde a las familiares y personales,

Se incluyen dos apéndices al final de este libro. El primero se refiere a estadísticas municipales que contiene información sobre tributación local, presupuestos de los ayuntamientos y otros entes locales y una explotación de las principales magnitudes del IRPF por municipios. El segundo apéndice recoge las principales disposiciones tributarias publicadas a lo largo del ejercicio de 2000.

Impuesto sobre la Renta de la Personas Físicas

Las 291.218 declaraciones del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del ejercicio 1999, presentadas en la campaña de 2000, son las primeras bajo la vigencia de la Norma Foral 8/1998 de 24 de diciembre. En términos generales, esta nueva norma ha supuesto una reforma global del impuesto con cambios importantes en su estructura. Entre otros conceptos se modifican: la bonificación y deducción aplicable a las rentas de trabajo, la forma de tributación por la vivienda habitual, la manera de computar e integrar los rendimientos irregulares, la tarifa del impuesto, la mayoría de las deducciones y los límites en la obligación a declarar.

El número de declaraciones presentadas, sobre todo debido a la modificación de los límites en la obligación a declarar, desciende con respecto al año anterior (5,3% menos que en 1998), mientras que en lo referente a la modalidad de tributación, los contribuyentes que optan por la vía ordinaria continúan aumentando su porcentaje de participación a costa de las declaraciones mecanizadas que, por primera vez, en el presente ejercicio son menos. El peso relativo de las declaraciones ordinarias ha aumentado por el espectacular avance que desde su implantación ha experimentado la vía telemática, que han supuesto 112.360 declaraciones.

A pesar de los cambios introducidos en la estructura del impuesto, los rendimientos procedentes del trabajo por cuenta ajena siguen representando más del 75% de la base liquidable declarada. Este porcentaje es inferior al de 1998 debido al aumento, en términos generales, de las bonificación de trabajo. A mucha distancia, las rentas procedentes de actividades empresariales y profesionales suponen el 11,7% de la base liquidable.

El capital mobiliario supone el 5,1%, mientras las ganancias y pérdidas patrimoniales ascienden hasta el 3,6%. El capital inmobiliario representa el 2,3%, lo que supone un aumento de 1,8 puntos porcentuales con respecto a 1998 debido a la modificación en el tratamiento de la vivienda habitual.

Las deducciones de la cuota del impuesto se han visto modificadas significativamente ya que además de ser eliminadas algunas de las existentes, se han modificado sustancialmente otras y ha cambiado el esquema propio estableciéndose seis grupos diferenciados. En el ejercicio 1999 las deducciones ascienden a 27.001 millones de pesetas de las que 10.563 millones de ptas. (el 39,1% del total) corresponden a las circunstancias familiares y personales. Esta

kenkarian aplikatu diren zenbatekoak handiagoak izatea dugu horren arrazoi nagusia.

... atzetik, ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik egindako kenkariak datoz...

Kuantitatiboki, bigarren kenkaririk garrantzitsuena ohiko etxebizitzari dagokio: 9.527 milioi pezetarekin, kopuru osoaren %35,3 hartzen du, eta berak lortu du hazkunderik handiena 1998. urtearen aldean, %50,5ekoa hain zuzen, batik bat finantzazioaren kenkaria talde honen barruan egiten delako.

..... eta azkenik, ezarpen bikoitzarenak.

Hirugarren tokia ezarpen bikoitzaren kenkariak hartzen du, hala dibidenduenak nola nazioartekoak. Kontzeptu honengatik 6.288 milioi pezetako kenkariak egin dira 1999ko ekitaldian, kenkari guztien %23,3, 1998an baino %10,5 gehiago.

Eliza Katolikoari kuotatik eman zaion portzentajea xede sozialetara bideratutakoa baino gutxiago gehitu da.

Kuota osoaren %0,5239eko portzentajea, hau da, zergadunak Eliza Katolikorako edo beste xede sozial batzuetarako bideratzen duena, 770 milioi pezetakoa izan da 1999an, aurreko urtean baino 71 milioi pezeta gutxiago; horrek -%8,4ko tasa esan nahi du termino portzentualetan. Kuota osoaren portzentajeari zein helburu eman zaion aztertzean, agerian geratzen da esleipena zeini eman espreski aukeratu ez dutenen kopurua igo egin dela. Gehikuntza horren onuraduna gizarte xedeak izan dira. Gainera, hauei esleipena xede horietarako ematea espreski adierazi duten aitortpenen zenbatekoa gehitzen bazaie, 1999ko ekitaldian 437 milioi bideratu dira gizarte helburuetarako. Gainerako %43,3, hots, 333 milioi pezeta, Eliza Katolikoari eman zaio.

Pertsona Fisikoen Ondarearen gaineko Zerga

16.576 aitortzaile izan dira eta 1,5 bilioi pezetako ondarea aitortu dute ...

2000. urtean 16.576 aitortpen aurkeztu dira ondarearen gaineko zergagatik, denak ere 1999. urteko datuei buruzkoak. Oinarri ezargarri osoa 1.464.858 milioi pezetakoa izan da, dagozkion murrizpenak aplikatu ondoren 1.055.767 milioi pezetako oinarri likidagarria eman duena. Ekitaldian ordaindu beharreko kuota osoa 5.316 milioi pezetakoa izan da, eta horrek %0,50ean utzi du batez besteko karga tasa.

... balore higikorrek dira nagusi ondarean ...

Aitortutako ondarearen osagaiei dagokienez, balore higikorrek dira oraindik ere nagusi, aitortu diren balore positibo guztien %63,2 hartu baitute. Aitortutako zorrak 5.312 milioi pezeta gehitu dira, aurreko urtean ez bezala, eta %15eko igoera ekarri dute 1998. urtearen aldean.

... eta neurri txikiagoan, balore higiezinak,

Garrantzi ordenari begiratuaz ondasun higiezinak agertzen dira bigarren ondasun mota nagusi bezala (%23,8), eta haren atzetik kontu korranteetako edo aurrezki kontuetako gordailuak datoz (%7,4). Oinarri ezargarriaren gainerako %5,6aren barruan azpimarratzekoak dira jarduera enpresarial eta profesionaletik datozen diru-sarrerak (%1,1) eta bizi aseguruak (%1,6).

cuantía supone un incremento respecto al año anterior del 25,8%, y se debe sobre todo al aumento que se ha producido en los importes aplicables en la deducción por descendientes.

... le sigue la deducción por vivienda habitual ...

Cuantitativamente, la segunda deducción en importancia es la correspondiente a vivienda habitual que con 9.527 millones representa el 35,3% del total; en comparación con 1998 ha sido la que presenta un mayor crecimiento al alcanzar una tasa del 50,5%, debido en parte a que en este grupo se recoge ahora la deducción por financiación.

..... y la deducción por doble imposición.

Por su parte, en tercer lugar se encuentra la deducción por doble imposición, tanto de dividendos como internacional. En 1999 por este concepto se han deducido un total de 6.288 millones, el 23,3% del total de deducción y un 10,5% más que en 1988.

La asignación de un porcentaje de la cuota a la Iglesia Católica crece menos que la destinada a fines sociales.

El 0,5239% de la cuota íntegra del que el contribuyente dispone para dedicar a la Iglesia Católica o a otros fines sociales en 1999 ha ascendido a 770 millones de pesetas, 71 millones de pesetas menos que en el ejercicio anterior, lo que en términos porcentuales supone una tasa del -8,4%. Al analizar el destino de dicho porcentaje de la cuota íntegra se aprecia un aumento de las asignaciones donde no se hace constar de forma expresa el destino deseado siendo el beneficiario los fines sociales a los que, junto al montante correspondiente a las declaraciones que lo han dicho expresamente, en el ejercicio 1999 se destinan 437 millones. La Iglesia Católica acumula el 43,3% restante, es decir, 333 millones de pesetas.

Impuesto sobre el Patrimonio de la Personas Físicas

16.576 personas declaran un patrimonio de 1,5 billones de pesetas ...

En 2000 se han presentado un total de 16.576 declaraciones del impuesto sobre el patrimonio, que recogen datos correspondientes al año 1999. La base imponible total ha ascendido a 1.464.858 millones de pesetas, que tras aplicar las reducciones correspondientes ha generado una base liquidable por importe de 1.055.767 millones. La cuota total a ingresar en el ejercicio ha sido 5.316 millones de pesetas, lo que ha supuesto un tipo medio de gravamen del 0,50%.

... compuesto, sobre todo, de valores mobiliarios ...

En la composición del patrimonio declarado siguen primando los valores mobiliarios, que este año representan el 63,2% del total de valores positivos declarados. Por su parte, las deudas declaradas, a diferencia del año anterior, aumentan en 5.312 millones de pesetas, lo que supone un incremento del 15% con respecto a 1998.

... y en menor medida de bienes inmuebles...

El segundo tipo de bien en orden de importancia son los bienes inmuebles con un 23,8%, y le sigue en tercer lugar con un 7,4% los depósitos en cuentas corrientes o cuentas de ahorro. En el restante 5,6% de la base imponible cabe destacar, con un 1,1%, los ingresos derivados de la actividad empresarial y profesional, y con un 1,6% los seguros de vida.

**... ondarea gehitu
ahala pisua galtzen
dutelako.**

**Aitorpen kopurua
nabarmen gehitu da
(14.165 guztira).**

**Horietatik 7.357k 45
mila milioi pezetako
oinarri nulo edo
negatiboa izan dute...**

**... eta 6.808k 336 mila
milioi pta.ko oinarri
positiboa eman dute.**

**Azken horiek 46 mila
milioi pezetako
sarrerak egin dizkiote
Foru Ogasunari.**

Osagaiak oinarri ezargarriaren tarteen arabera nola banatzen diren aztertzean, agerian geratzen da ondasun higiezinak oinarri txikieneko tartetean nagusitzen direla eta aitortutako oinarri ezargarriaren tarteen zenbatekoa gora doan neurrian horiek gutxituz doazela apurka-apurka balore higikorren mesedean.

Sozietateen gaineko Zerga

Guztira 14.165 aitorpen aurkeztu dira, aurreko urtean baino %9,5 gehiago, 12.934 aurkeztu baitziren orduan. Araudi aplikagarriaren arabera aztertuta, aitorpena aurkeztu dutenen %96,1ek (13.608 entitatek) Gipuzkoako foru araudia aplikatu dute, 106 enpresari (kopuru osoaren %0,7ri) EAEko beste aldundien araudia aplikatu zaie, eta gainerako 451 entitateek araudi komuna eta Nafarroakoa jarraitu dute.

Oinarri likidagarri negatibo edo nuloa egotzi duten 7.357 enpresek 17.895 milioi pezetako kontabilitate emaitza negatiboa aitortu dute guztira (2,4 milioiko galera batez beste). Beren kontabilitatez kanpoko doiketa positiboa 12.458 milioi pezetakoa izan da, eta kontabilitatez kanpoko doiketa negatiboa, berriz, 28.458 milioi pezetakoa. Aurretiko oinarri ezargarri negatiboa 33.895 milioi pezetakoa izan da horren ondorioz. Aurreko ekitaldietako oinarri ezargarri negatiboengatik 11.069 milioi pezeta konpentsatu dira (1,5 milioi batez beste), eta horrek 44.964 milioi pezetako oinarri ezargarri negatiboa eman du ekitaldian. Oinarri negatibo edo nuloa izan duten 151 AEB eta IEEK 690 milioi pezetako oinarria egotzi diete beren bazkideei eta, beraz, gainerako 7.206 sozietateen oinarri likidagarri negatiboa 44.509 milioi pezetakoa izan da, batez beste 6,2 milioi pezeta enpresa bakoitzeko.

Oinarri likidagarri positiboa izan duten 6.808 enpresek 322.706 milioi pezetako kontabilitate emaitza aitortu dute guztira (47,4 milioi batez beste). Beren kontabilitatez kanpoko doiketa positiboa 108.431 milioi pezetakoa izan da, eta kontabilitatez kanpoko doiketa negatiboa, berriz, 84.766 milioi pezetakoa. Aurretiko oinarri ezargarria 346.371 milioi pezetakoa izan da horren ondorioz. Aurreko ekitaldietako oinarri ezargarri negatiboengatik 9.546 milioi pezeta konpentsatu dira, eta enpresa berriek 983 milioi pezetatan murriztu dute beren oinarria, 335.843 milioi pezetako oinarri likidagarria eman dutelarik. Oinarri positiboa izan duten 78 AEB eta IEEK 1.940 milioi pezetako oinarria izan dute eta, beraz, gainerako 6.730 sozietateen oinarri likidagarria 333.903 milioi pezetakoa izan da azkenean, batez beste 49,6 milioi pezeta enpresa bakoitzeko.

Herri Ogasunari egin zaizkion sarrerak (zergaren likidoa gehi atxikipenak eta konturako ordainketak) 46.208 milioi pezetakoak izan dira guztira, hau da, entitate bakoitzak 6,8 milioi pezeta ordaindu ditu batez beste. Sarrera guztien eta oinarri likidagarriaren arteko erlazioa, zergaren tasa efektiboa ematen duena, %13,9koa izan da 1999an.

..... cuya importancia disminuye al crecer el patrimonio.

Fuerte incremento de declaraciones que ascienden a 14.165 ...

...de las que 7.357 presentan una base nula o negativa de 45 mil millones ...

... y 6.808 presentan una base positiva de 336 mil millones.

Estas últimas ingresaron 46 mil millones en la Hacienda Foral.

Al analizar la distribución de los componentes por tramos de base imponible, los bienes inmuebles predominan en los tramos de declarantes con menor base y paulatinamente disminuyen en favor de los valores mobiliarios conforme se incrementa la cuantía de los tramos de la base imponible declarada.

Impuesto sobre Sociedades

El total de declaraciones presentadas ascienden a 14.165, un 9,5% más que las 12.934 presentadas el año anterior. Según la normativa aplicable, al 96,1% (13.608 entidades) del total de declarantes les es de aplicación la normativa foral de Gipuzkoa, a otras 106 empresas (0,7% del total) la normativa del resto de las diputaciones de la CAPV, mientras que las 451 restantes se consideran de normativa común y de Navarra.

Las 7.357 empresas con base liquidable imputada negativa o nula declaran un resultado contable negativo total de 17.895 millones de ptas. (2,4 millones de pérdida por término medio), 12.458 millones de ajustes extracontables positivos y 28.458 millones de ajustes negativos, lo que da lugar a una base imponible previa negativa de 33.895 millones de ptas. Se compensan 11.069 millones por bases imponibles negativas de ejercicios anteriores (una media de 1,5 millones por empresa), por lo que la base imponible negativa asciende a 44.964 millones de ptas. La base imputada por las 151 UTE y AIE con base negativa o nula a sus socios, se eleva a 690 millones de ptas., y por lo tanto la base liquidable negativa para las 7.206 sociedades restantes se sitúa en 44.509 millones de ptas., una media de 6,2 millones por empresa.

Las 6.808 empresas con base liquidable positiva, declaran 322.706 millones de pesetas de resultado contable (47,4 millones de media), 108.431 millones de ajustes extracontables positivos y 84.766 millones de ajustes negativos, que dan lugar a una base imponible previa de 346.371 millones de ptas. Se compensan 9.546 millones por bases negativas de ejercicios anteriores y las empresas de nueva creación reducen sus bases por importe de 983 millones, por lo que la base liquidable asciende a 335.843 millones de ptas. La parte correspondiente a las 78 UTE y AIE con base positiva es de 1.940 millones de ptas., por lo que la base liquidable para las 6.730 entidades restantes se eleva a 333.903 millones de ptas., una media por empresa de 49,6 millones de ptas.

Los ingresos totales a la Hacienda Pública (líquido del impuesto más retenciones y pagos a cuenta) ascendieron a 46.208 millones de ptas., una media por entidad a ingresar de 6,8 millones de ptas. La relación entre los ingresos totales y la base liquidable determina el tipo efectivo del impuesto, que se situó para 1999 en el 13,9%.

Oinarri positiboa izan duten sozietateen %61,2 erantzukizun mugatukoak dira eta sarreraren %18,8 egin dute.

... Sozietate anonimoak, berriz, heren bat dira eta %69,2 ordaindu dute,...

... eta kooperatibek %5,1 ordaindu dute (%3,2 dira).

6.808 sozietateak eskualdeen arabera banatzean ikus daitekeenez,....

... Donostiak enpresen heren bat baino gutxiago hartu arren, sarreraren %39,4 egin ditu,...

... eta Deba Garaiak, sozietateen %7,1 izanik, etekin enpresarial guztien %28,4 metatu du.

Oinarri likidagarri positiboa izan duten entitateak izaera juridikoaren arabera sailkatuz gero, ikus dezakegu erantzukizun mugatuko sozietateak kopuru osoaren erdia baino gehiago izan arren (%61,2), kontabilitate emaitzaren %13,5 baino ez direla, kuota osoaren %18,3 eta Herri Ogasunari egindako sarrera guztien %18,8. Batez besteko tasa %32,2koa da eta batez besteko tasa efektiboa, berriz, %18,34koa. Bi portzentaje horiek gainditu egiten dituzte oinarri likidagarri positiboa izan duten aitortzaile kopuru osorako tasak.

Bestalde, sozietate anonimoek (kopuru osoaren %30,9k) kontabilitate emaitzaren %44,3 metatu dute, kuota osoaren %65,6, Herri Ogasunari egindako sarrera guztien %69,2 eta ia-ia jarduera ekonomikoari emandako laguntza fiskalen bi herenak. Batez besteko tasa %32,6koa da eta batez besteko tasa efektiboa %19,1ekoa, aitortzaile kopuru osorako dauden tasak baino askoz ere gehiago.

Azkenik, sozietate kooperatiboak (oinarri positiboa izan dutenen %3,2) kontabilitate emaitzaren %11,8 dira, kuota osoaren %8,1 eta sarrera guztien %5,1. Batez besteko tasa %22,6koa izan da (batez bestekoa baino zerbait gutxiago), eta batez besteko tasa efektiboa, berriz, %7,9koa, oinarri likidagarri positiboa izan duten aitortzaile kopuru osoaren batez bestekoa baino 6 puntu gutxiago.

Oinarri likidagarri positiboa izan duten entitateak helbideraturik dauden eskualdearen arabera sailkatuz gero, ondorio hauek ateratu daitezke: kopuru osoaren %94,2 Gipuzkoan daude helbideratuta eta kontabilitate emaitzaren %92,7 hartzen dute, kuota osoaren %87,9, Herri Ogasunari egindako sarrera guztien %85,7 eta jarduera ekonomikoari emandako laguntza fiskalen %92,8. Gipuzkoako eskualdeen artean bi aipatuko ditugu bereziki, beren portzentajeak besteenak baino handiagoak direlako arrazoi desberdinak direla medio: batetik, Donostia (lurraldeko hiriburua eta, azterketaren ondorioetarako, eskualdetzat hartu duguna) eta, bestetik Deba Garaia.

Donostiak portzentajerik handienak erakusten ditu kontzeptu gehienetan. Gipuzkoan helbideratuta dauden eta oinarri positiboa izan dutenen %28,4 hartzen du, kontabilitate emaitzaren %37,5, kuota osoaren %37,7 eta Herri Ogasunari egindako sarreraren %39,4. Portzentaje horiek hain handiak izateko arrazoietako bat izan daiteke entitate askok hiriburuan dutela helbide soziala, produkzio zentroak probintziako beste toki batzuetan egon arren.

Deba Garaian Gipuzkoan helbideratuta dauden sozietateen %7,1 bakarrik egon arren, eskualde honek kontabilitate emaitzaren %28,4 metatu du, kuota osoaren %10,5 eta sarrera guztien %9,1. Eskualde honetako ezaugarri nagusietako bat aitortzaile kopuru osoaren aldean dituen karga tasa txikiak dira: zehazki esanda, batez besteko karga tasa %12,2koa da (%25,1ekoa da orokorra) eta batez besteko tasa efektiboa, berriz, %5,9koa (%13,9ren aldean). Batez

De las sociedades con base positiva, las de responsabilidad limitada, siendo el 61,2%, contribuyen con el 18,8%...

... las sociedades anónimas, un tercio, ingresan el 69,2% ...

... y las cooperativas, representando el 3,2%, ingresan el 5,1%.

La distribución por comarcas de las 6.808 sociedades revela que ...

... Donostia, con menos de un tercio de las empresas, contribuye a un 39,4% de los ingresos y ...

... Deba Garaia, con el 7,1% de las sociedades, concentra el 28,4% de los beneficios empresariales.

Si clasificamos a las entidades con base liquidable positiva, según su forma jurídica, observamos que si bien las sociedades de responsabilidad limitada representan en número más de la mitad del total (61,2%), suponen únicamente el 13,5% del resultado contable, el 18,3% de la cuota íntegra y el 18,8% de los ingresos totales en la Hacienda Pública. Su tipo medio se sitúa en el 32,2% y su tipo medio efectivo en el 18,34%, ambos por encima de los tipos para el total de declarantes con base liquidable positiva.

Por otro lado, las sociedades anónimas con el 30,9% del total, acumulan el 44,3% del resultado contable, el 65,6% de la cuota íntegra, el 69,2% de los ingresos totales en la Hacienda Pública y prácticamente dos tercios de las ayudas fiscales a la actividad económica. El tipo medio se sitúa en el 32,6% y el tipo medio efectivo en el 19,1%, ambos también muy por encima de los tipos para el total de declarantes.

Por último las sociedades cooperativas, 3,2% del total con base positiva, representan el 11,8% del resultado contable, el 8,1% de la cuota íntegra y el 5,1% de los ingresos totales. El tipo medio se sitúa en el 22,6% (un poco inferior a la media) y el tipo medio efectivo en el 7,9%, 6 puntos menos que la media para el total de declarantes con base liquidable positiva.

Clasificando a las entidades con base liquidable positiva por la comarca donde se halla su domicilio fiscal, observamos cómo el 94,2% del total están domiciliadas en Gipuzkoa y que éstas acumulan el 92,7% del resultado contable, el 87,9% de la cuota íntegra, el 85,7% de los ingresos totales en la Hacienda Pública y el 92,8% de las ayudas fiscales a la actividad económica. Dentro de las comarcas de Gipuzkoa, vamos a mencionar dos, Donostia (la capital del Territorio que a efectos de análisis es tratada como comarca) y Deba Garaia, que por diferentes motivos presentan porcentajes superiores al resto.

Dentro de las domiciliadas en Gipuzkoa, Donostia es la que mayores porcentajes acumula en casi todos los conceptos con el 28,4% del número de domiciliadas en Gipuzkoa y base positiva, el 37,5% del resultado contable, el 37,7% de la cuota íntegra y el 39,4% de los ingresos en la Hacienda Pública. Uno de los factores que puede explicar estos porcentajes tan elevados se encuentra en el hecho de que muchas entidades mantienen su domicilio social en la capital, aún teniendo sus centros de producción distribuidos en otros puntos de la provincia.

En la comarca de Deba Garaia, aunque sólo están domiciliadas el 7,1% del total de Gipuzkoa, acumulan el 28,4% del resultado contable, el 10,5% de la cuota íntegra y el 9,1% de los ingresos totales. Una de las principales características de esta comarca es los bajos tipos de gravamen que presenta respecto al total de declarantes; concretamente el tipo medio se sitúa en el 12,2% frente al 25,1% general, y el tipo medio efectivo en el 5,9% frente al 13,9%.

besteko tasetan dagoen alde hori zergatik gertatzen den ulertzeko, kontuan eduki behar da batik bat sozietate kooperatibo askok eskualde honetan dutela helbide soziala eta beren karga tasak orokorra baino txikiagoak direla.

Sozietateen zerga pizgarriak

Sozietateen %23,3 bildu da zerga pizgarrietara ...

1999an zehar 3.304 sozietate bildu dira guztira zerga pizgarrietara, hau da, ekitaldi horretan Sozietateen gaineko Zergaren aitortpena aurkeztu duten 14.165 enpresen %23,3, 1998an baino %19,5 gehiago (2.764 sozietate izan ziren urte horretan pizgarrietara bildutakoak). Azken urteotan, eta hainbat arrazoi direla medio (batik bat araudiaren aldaketatik eta ziklo ekonomikoaren bilakaera beragatik), bildutako enpresa kopuruak hainbat gorabehera izan ditu, nahiz eta 1996. urteaz geroztik kopuru hori %80tik gora igo den.

... eta 147 mila milioiko gastua hobaritu zaie.

1999an 146.637 milioi pezetako pizgarriak eman dira gastu eta inbertsioengatik, eta kenkari aplikagarria 24.441 milioi pezetakoa izan da. Aurreko urtearen aldean portzentajeak %6,7 eta %7,3 igo dira hurrenez hurren. Kopuru horiek Gipuzkoan egindako eragiketa portzentajearen arabera lurralde horri egotzitako inbertsio eta kenkariari dagozkie. Bestalde, kenkariaren kasuan, kenkari aplikagarriari egiten zaio erreferentzia, ez ekitaldian benetan aplikatutakoari. Zerga pizgarrien kontzeptu generikoaren azpian helburu desberdinetara bideratuta dauden neurriak biltzen dira: enpresek aktibo finko material berrietan (AFMBetan) egiten duten inbertsioari pizgarriak ematea, gure ekonomiarako lehentasunezko hartzen diren zenbait jarduera sustatzea (ikerketak eta garapena, ingurugiroaren hobekuntza eta artapena, esportazioa, enpresako langileen prestakuntza, etab.) eta enpresen finantzazioa hobetzea.

... 105 mila milioi aktibo finko material berrietan egindako inbertsioak dira...

Zerga neurririk garrantzitsuena, hala inbertsio eta gastuan nola kenkari aplikagarrian, aktibo finko material berrian egindako inbertsioa da. Guztira 104.826 milioi pezeta inbertitu dira (kopuru osoaren %71,5) eta 13.926 milioi pta.ko kenkari aplikagarria izan du (%57,0). 1998. urtearekin konparaturik, inbertsioa %13,6 gehitu da eta kenkaria %1,7.

eta horietatik 32 mila eraikuntzan inbertitu da.

Egindako inbertsioak sailkatzen badira inbertsioa jaso duen aktiboaren Kontabilitate Kodearen arabera, ikus dezakegu eraikuntzak erosteko erabilitako kopuruak (31.762 milioi pta. guztira) AFMBan inbertitutakoaren %30,3 direla, eta horrek 4.079 milioi pezetako kenkari aplikagarria izan duela (%29,0). Garrantzi handia du, baita ere, ekitaldiko inbertsio eta kenkari osoari dagokionez, kontzeptu guztien kopuru osoaren %21,7 eta %16,7 baita hurrenez hurren.

Esta diferencia de tipos medios se debe sobre todo a la alta concentración en esta comarca del domicilio social de las sociedades cooperativas con tipos de gravamen inferiores al general.

Incentivos Fiscales de Sociedades

El 23,3% de las sociedades se ha acogido a los Incentivos Fiscales ...

El número de sociedades acogidas a incentivos fiscales durante 1999 ha ascendido a 3.304, el 23,3% de las 14.165 empresas que presentan declaración en ese ejercicio, y un 19,5% más que las 2.764 que se acogieron en 1998. A lo largo de los últimos años, y debido a diversas razones (sobre todo a cambios normativos y a la propia evolución del ciclo económico), el número de empresas acogidas ha sufrido diversas oscilaciones, si bien desde 1996 el número ha crecido en más de un 80%.

... con un gasto incentivado de 147 mil millones ...

La cuantía total de inversión y gasto incentivados durante 1999 asciende a 146.637 millones de ptas., y su deducción aplicable a 24.441 millones; el incremento respecto al año anterior ha sido del 6,7% y del 7,3%, respectivamente. (Estos importes hacen referencia a la inversión y deducción imputados a Gipuzkoa según el porcentaje de operaciones realizados en el territorio. Por otro lado la deducción hace referencia a la deducción aplicable y no a la realmente aplicada en el ejercicio.) Bajo el concepto genérico de incentivos fiscales se agrupan toda una serie de medidas destinadas a incentivar la inversión empresarial en activos fijos materiales nuevos (AFMN), a promover determinadas actividades consideradas prioritarias para nuestra economía (investigación y desarrollo, mejora y conservación del medio ambiente, exportación, formación del personal de la empresa, etc.) y a mejorar la financiación de las propias empresas.

... de los que 105 mil millones corresponden a inversión en activos fijos materiales nuevos ...

La medida fiscal más importante, tanto en términos de inversión y gasto realizados como de deducción aplicable, es la inversión en activo fijo material nuevo, ya que con 104.826 millones de ptas., representa el 71,5% del total de la inversión, y con 13.926 millones el 57,0% de la deducción aplicable. En comparación con 1998, la inversión crece un 13,6% y la deducción un 1,7%.

... y de éstos 32 mil a construcciones.

Si clasificamos las inversiones realizadas según el Código Contable al que pertenece el activo objeto de la inversión, observamos cómo los importes destinados a la adquisición de construcciones (31.762 millones de ptas.) representan el 30,3% de lo invertido en el ejercicio en AFMN y los 4.079 millones de deducción aplicable, el 29,0%. Cabe destacar así mismo su importancia en relación a la inversión y deducción conjunta del ejercicio, pues supone el 21,7% y el 16,7%, respectivamente, del total por todos los conceptos.

Bestalde, 16 mila milioi pezeta balore higikorrek eskuratzeko erabili dira,....

... 8 mila milioi esportazioak sustatzeko eta 8 mila I+G jardueretarako.

Pizgarriak eman dira 6.488 enplegu sortzeagatik.

Sozietate motari begiratuz gero ...

... sozietate anonimoek gastu hobariatua %55,8 bereganatu dute eta erantzukizun mugatukoek haren %27,1.

Sektoreka, industrian pilatu da inbertsioa (inbertsioaren %56,8 eta kenkariaren %60,0), "Makinaria", "Metalgaiak" eta "Oinarrizko

Bestelako inbertsioen taldea harturik, horietako hiru aipatuko ditugu: batetik, errenta aldakorreko baloreak eskuratzeko egindako inbertsioak, 15.645 milioi pezeta inbertitu direlako (kopuru osoaren %10,7) eta 996 milioi pta.ko kenkariak egin (kopuru osoaren %3,9). 1998. Urtearen aldean, neurri hau %32,5 jaitsi da inbertsioari dagokionez eta %32,0 kenkari aplikagarriari dagokionez.

Bestetik, esportazioak sustatzeko egindako gastuak, guztira 7.624 milioi pezetakoak izan direnak (kopuru osoaren %5,2) eta 1.906 milioi pta.ko kenkari aplikagarria izan dutenak (ekitaldiko %7,8). Bi zenbaterako horiek %8,9 jaitsi dira aurreko urtearekin konparatuta. Azkenik, aipatu beharrekoa da ikerkuntza eta garapen teknologikoko programetan egindako inbertsio eta gastua, 8.227 milioi pezetakoa guztira (kopuru osoaren %5,6), 2.282 milioi pezetako kenkariak egiteko aukera eman duena, hau da, kenkari guztien %9,3. Inbertsioa eta gastua %38,7 gehitu dira, eta kenkariak %37,0ko igoera izan du.

Enplegua sortzeagatik 4.006 milioi pta.ko kenkari aplikagarria gertatu da. Kopuru horren %93,8 (3.757 milioi) kenkari orokorrari dagokio, eta gainerakoa, hau da, 249 milioi (%6,2) minusbaliatuak kontratatzeagatik egindako kenkari bereziari. 1998. urtearekin konparaturik, kenkari osoa %35,0 gehitu da, kenkari orokorra %37,4 eta kenkari berezia %7,6. Pizgarriak izan dituen plantila gehikuntza 6.488 pertsonakoa izan da urteko.

Pizgarrietara bildutako sozietateak izaera juridikoaren arabera sailkatzen baditugu hauxe ikus dezakegu: erantzukizun mugatuko sozietateak kopuru osoaren erdia baino gehiago dira (3.304tik 1.933), sozietate anonimoek (1.201 enpresak) %36,3 hartzen dute, sozietate kooperatiboek (117 enpresak) %3,5, eta gainerako sozietateen taldea nekez iristen da %1,6ra (53 enpresa bildu dira pizgarrietara).

Kopuruz erantzukizun mugatuko sozietateak baino gutxiago izan arren, sozietate anonimoek ekitaldiko inbertsio eta kenkari gehienak metatzen dituzte; zehazki esateko, inbertsio osoaren %55,3 dira (146.637 milioitik 81.128 milioi) eta kenkariaren %54,8 (24.441 milioitik 13.391 milioi). Erantzukizun mugatutako sozietateak kopuru osoaren %58,5 izan arren, inbertsioaren %27,1 eta kenkariaren %24,6 dira bakarrik. Sozietate kooperatiboek (kopuru osoaren %3,5 baino ez) ekitaldiko inbertsioaren %13,7 eta kenkariaren %17,6 suposatzen dute. Azkenik, "bestelakoen" taldea nekez iristen da inbertsio osoaren %3,9ra eta kenkariaren %3,0era.

Ekonomiaren oinarrizko hiru sektoreak aztergai harturik (nekazaritza, industria eta zerbitzuak), berehala ohartzen gara lehen sektorean oso enpresa gutxi bildu direla pizgarrietara (3.304tik 8 baino ez, hau da, kopuru osoaren %0,2); industriaren kasuan (eraikuntza barne) 1.521 enpresa bildu dira pizgarrietara, kopuru osoaren %46,0, eta hirugarren sektorean 1.775 izan dira bildutakoak (%53,7). Hala ere, ekitaldiko inbertsio eta kenkari osoari

Por otro, lado 16 mil millones se destinan a adquisición de valores mobiliarios ...

... 8 mil a fomento de exportaciones y 8 mil a I&D.

Se incentiva la creación de 6.488 empleos.

Por tipos de sociedades ...

... las sociedades anónimas absorben el 55,3% del gasto incentivado y las de responsabilidad limitada el 27,1%.

La inversión por sectores se concentra en la Industria con el 56,8% de la inversión y el 60,0% de la deducción, con ramas como la

Del grupo de Otras inversiones vamos a mencionar a tres de ellas; primero la inversión en adquisición de valores de renta variable, que se eleva a 15.645 millones de ptas. (10,7% del total) y su deducción a 996 millones de ptas. (3,9% de total). Esta medida ha disminuido un 32,5% en la inversión respecto a 1998, y un 32,0% en la deducción aplicable.

Los gastos realizados en el fomento de las exportaciones, 7.624 millones de ptas., es decir, el 5,2% del total, con una deducción aplicable de 1.906 millones de ptas. (7,8% del ejercicio). Estos dos importes decrecen un 8,9% en comparación con el año anterior. Y tercero y último, el importe de la inversión y gasto realizados en programas de investigación y desarrollo tecnológico, que se ha elevado a 8.227 millones de ptas. (5,6% del total), lo que ha posibilitado aplicarse deducciones por valor de 2.282 millones de ptas., un 9,3% del total de deducciones. La inversión y gasto realizado aumenta un 38,7%, mientras que la deducción lo hace un 37,0%.

La deducción aplicable por creación de empleo asciende a 4.006 millones de ptas., de los cuales el 93,8% (3.757 millones) corresponden a la deducción general, mientras que el resto, 249 millones de ptas., (el 6,2%) a la deducción especial por contratación de trabajadores minusválidos. Respecto a 1998, la deducción total se ha incrementado un 35,0%, frente a la subida del 37,4% de la deducción general y del 7,6% de la especial. El incremento de plantilla incentivado asciende a 6.488 personas/año.

Si clasificamos a las empresas acogidas según su forma jurídica, observamos cómo las sociedades de responsabilidad limitada representan más de la mitad del total (1.933 sobre 3.304), las sociedades anónimas con 1.201 empresas acogidas el 36,3%, las cooperativas con 117 empresas acogidas el 3,5%, mientras que el grupo formado por el resto de sociedades apenas llega al 1,6% con 53 empresas acogidas.

Las sociedades anónimas, a pesar de representar menos en número que las sociedades de responsabilidad limitada, acumulan la mayoría de las inversiones y deducciones del ejercicio, concretamente el 55,3% de la inversión total (81.128 millones de ptas. sobre 146.637 millones) y el 54,8% de la deducción (13.391 millones de ptas. sobre 24.441 millones). Las sociedades de responsabilidad limitada, a pesar de representar el 58,5% del total, acumulan el 27,1% de la inversión y el 24,6% de la deducción total. Las sociedades cooperativas, que representan sólo el 3,5%, acumulan el 13,7% de la inversión y el 17,6% de la deducción del ejercicio. El grupo de "otras sociedades" apenas llega al 3,9% de la inversión total y al 3,0% de la deducción.

Atendiendo a los tres sectores básicos de la economía (agricultura, industria y servicios), observamos que el número de sociedades acogidas que pertenecen al sector primario es prácticamente insignificante (8 de 3.304 que suponen sólo el 0,2% del total); en la industria con construcción se concentran 1.521 empresas que representan el 46,0% del total mientras que en el sector terciario con 1.775 empresas acogidas se acumula el 53,7% del total. Esta

metalgintza"
adarretan 10.000
milioitik gorako
inbertsioak eginez.....

erreparatzen badiogu, banaketa hori nabarmen aldatzen da; izan ere, industri sektoreak inbertsioaren %56,8 eta kenkariaren %60,0 hartzen baitu, eta zerbitzuen sektoreak, berriz, %43,0 eta %39,8 hurrenez hurren. Industriaren barruan badira hiru adar 10.000 milioi pezetatik gorako inbertsioak egin dituztenak: "Makineria" (14.254 milioi), "Metalgaiak" (12.416 milioi) eta "Oinarrizko metalgintza" (10.104 milioi). Adar hauek jaso dituzten pizgarriak, hurrenez hurren, 634, 589 eta 121 enplegu berri sortzearen ondorioz etorri dira.

... eta, neurri
txikiagoan, baita
zerbitzuetan ere.

"Zerbitzuen" sektorean "Bestelako merkataritza zerbitzuak" eta "Merkataritza eta Ostalaritza" adarrak nabarmentzen dira. Aktibo finko materialean, hurrenez hurren, 21.517 eta 12.961 milioi pezeta inbertitu dituztelako jaso dituzte pizgarriak. Aipagarri da, halaber, bi adarretan sortu den enplegu handia, 4.339 lehenengoan eta 3.060 bigarreanean alegia.

Eskualdeka aztertuta,
Donostia eta Deba
Garaia nabarmentzen
dira...

Aitortutako zenbatekoak entitate aitortzailea helbideraturik dagoen eskualdearen arabera aztertzen badira oso datu esanguratsuak jartzen dira agerian. Donostiak lehen tokia hartzen du bai enpresa kopuruan (820, hau da, kopuru osoaren %24,8), bai inbertsioan (36.257 milioi eta %24,7) bai eta kenkari aplikagarrian ere (5.566 milioi eta %22,8), eta hori gertatzen da batik bat entitate askok hiriburuan dutelako helbide soziala, beren produkzio zentroak probintziako beste toki batzuetan egon arren. Azpimarratu beharreko beste eskualde bat Deba Garaia da: enpresa aitortzaileen %7,4rekin (3.304tik 244), ekitaldiko inbertsioaren %13,4 hartzen du (19.648 milioi pezeta guztira) eta 3.944 milioi pta.ko kenkari aplikagarria izan du (%16,1).

... eta, beste maila
batean, Urola Kosta
eta Goierri.

Kopuru garrantzitsuak ageri dituen beste eskualde bat Urola Kosta dugu. Guztira 318 enpresa bildu dira pizgarrietara (kopuru osoaren %9,6), eta 20.133 milioi pezeta inbertitu dituzte (%13,7), 2.851 milioi pta.ko kenkariak aplikatzera iritsi direlarik. Bestalde, Goierriko eskualdean bildu diren 265 enpresek (kopuru osoaren %8,0k) inbertsioaren %15,8 eta kenkari osoaren %13,3 metatu dute. Aldiz, Bidasoa Beheko eskualdean bildu diren 316 enpresek (%9,6k) portzentaje hauek eman dituzte: %6,3koa inbertsioan eta %7,4koa kenkarian. Donostialdean, berriz, 391 enpresa bildu dira (%11,8), 9.284 milioi pezetako inbertsioak egin dituzte (%6,3) eta kenkari aplikagarri osoa 1.735 milioi pezetara heldu da (kopuru osoaren %7,1).

Deba Behean helbideratuta dauden sozietateek (332 enpresa dira guztira, hau da, kopuru osoaren %10,0) 10.925 milioi pezetako inbertsioak egin dituzte, hots, ekitaldiko inbertsio osoaren %7,5, eta 1.921 milioi pezetako kenkari aplikagarria izan dute (%7,9). Tolosaldean 257 enpresa bildu dira (kopuru osoaren %7,8); inbertsioa 7.764 milioi pezetakoa izan da (%5,3) eta kenkaria 1.476 milioikoa (%6,0). Bestalde, Oarsoaldeari dagokionez (265 enpresa bildu dira, hau da, kopuru osoaren %8,0), 6.261 milioi pezetako inbertsioak egin dira (%4,3) eta bere kenkari aplikagarria 1.180 milioi pezetakoa izan da (%4,8).

**"Maquinaria",
"Artículos Metálicos",
y "Metálicas Básicas"
con inversiones
superiores a 10.000
millones...**

participación se altera sustancialmente en lo que se refiere a la inversión y la deducción total del ejercicio, ya que el sector industrial representa el 56,8% de la inversión y el 60,0% de la deducción, frente al 43,0% y el 39,8%, respectivamente, del sector servicios. Dentro de la Industria destacan tres ramas con unas inversiones superiores a 10.000 millones de pesetas. Son "Maquinaria" con 14.254 millones, "Artículos Metálicos" con 12.416 millones y "Metálicas Básicas" con 10.104 millones de pesetas. El empleo incentivado en estas ramas ha sido de 634, 589 y 121 nuevo ocupados respectivamente.

**... y, en menor
medida, en los
Servicios.**

En el sector "Servicios" destacan las ramas de "Otros Servicios Comerciales" y "Comercio y Hostelería" con inversiones incentivadas en activo fijo material de 21.517 millones y 12.961 millones respectivamente. También destaca la importante creación de empleo en ambas ramas con 4.339 y 3.060 empleos respectivamente.

**Por comarcas
destacan Donostia y
Deba Garaia ...**

El análisis de los importes declarados según la comarca donde se halla el domicilio social de la entidad declarante, pone de manifiesto una serie de datos significativos. En principio Donostia ocupa el primer lugar tanto en el número de empresas (820 que suponen el 24,8% del total), como en la inversión (36.257 millones de ptas. y el 24,7%) y en la deducción aplicable (5.566 millones y el 22,8%), sobre todo por el hecho de que muchas entidades, aún teniendo sus centros de producción repartidos por otros puntos de la provincia, mantienen su domicilio social en la capital. Pero también es conveniente resaltar a la comarca del Deba Garaia, que con el 7,4% de las empresas declarantes (244 sobre 3.304) acumula el 13,4% (19.648 millones de ptas.) de la inversión del ejercicio y el 16,1% (3.944 millones) de la deducción aplicable.

**... y, en otro plano,
Urola Kostaldea y
Goierri.**

Zenbatekoa milioi pezetakotan / Importe en millones de pesetas

ezargarrietan gertatu da. Batera hartuta, 394.480 milioi pezeta gehitu dira, hau da, %11,9ko igoera gertatu da 1999. urtearen aldean. Zehazki esateko, gehikuntzarik handiena, bai kopuruz eta bai portzentajeaz, %16ko tasa orokorrari dagokion oinarri ezargarrian aurkitzen dugu, 331.998 milioi pezeta igo delako, hau da, %12,1 gehiago termino portzentualetan. Bigarren tokian %7ko tasa murriztuari dagokion oinarri ezargarria dugu, haren igoera 55.608 milioi pezetakoa izan baita (%12,1 gehiago ere kasu honetan). Azkenik, igoerarik txikienak tasa murriztuena duen oinarri ezargarrian ageri dira; kuantitatiboki 6.874 milioi pezeta bakarrik gehitu da eta, portzentualki, %7koa da bere urtearteko bariazio tasa.

Baliokidetasun errekaruen oinarri ezargarria - txikizkako merkatariek erabiltzen dute erregimen berezi hori- %1,3 baino ez da igo 1999. urtearen aldean (urte horretan %16,1 jaitsi zen). Gehikuntzaren arrazoia %0,5eko errekaruaren oinarri ezargarria %2,1 handitu izana da, kuantitatiboki 530 milioi pezetatan gehitu delako. %1eko errekaruaren oinarri ezargarria 283 milioi pezeta handiagoa izan da eta %1,3ko bariazio tasa lortu du urte batetik bestera. Tasa txikia izan arren, aintzat hartzekoa da 1999an %42,3 jaitsi zela kontuan hartuta. Azkenik, %4ko errekaruaren oinarri ezargarria %0,6 bakarrik gehitu da, igoera 160 milioi pezetakoa izan delarik.

Batasunaren barruko eskurapenek 44.704 milioi pezetatan igo dute beren oinarri ezargarria. Urtearteko tasa %14,5koa izan da, aztertutako hiru oinarri ezargarrietan handiena, eta 1999an lortutako %10,3ko tasa ere gainditu du.

reducido y superreducido que en conjunto aumentan en 394.480 millones de pesetas, lo que supone un incremento del 11,9% con respecto a 1999. Concretamente, el aumento más elevado, tanto cuantitativo como porcentual, se encuentra en la base imponible del tipo general, del 16%, que crece en 331.998 millones de pesetas lo que en términos porcentuales supone un incremento del 12,1%. En segundo lugar se encuentra la base imponible correspondiente al tipo reducido, del 7%, que crece también el 12,1% con un aumento de 55.608 millones de pesetas. Por último, la base imponible del tipo superreducido obtiene los menores incrementos, ya que cuantitativamente sólo crece en 6.874 millones de pesetas, y porcentualmente su variación interanual ha sido el 7%.

La base imponible de los recargos de equivalencia, régimen especial al que se acogen los comerciantes minoristas, aumenta sólo un 1,3% con respecto a 1999, año en el que descendió en un 16,1%. Este aumento es debido al incremento en un 2,1% de la cuantía de la base imponible del recargo del 0,5%, que cuantitativamente crece en 530 millones de pesetas. La base del 1% presenta un aumento de 283 millones de pesetas alcanzando una tasa de variación interanual del 1,3%, tasa baja aunque significativa si se compara con el descenso del 42,3% obtenido en 1999. Por último, la base imponible del recargo del 4%, apenas crece con una tasa del 0,6% y un aumento en 160 millones de pesetas.

Las adquisiciones intracomunitarias aumentan su base imponible en 44.704 millones de pesetas obteniendo una tasa interanual del 14,5%, la más elevada de los tres tipos de bases imponibles analizados, y superior también al 10,3% alcanzado en 1999.

5.4. SORTUTAKO KUOTA, BATEZ BESTEKO KARGA TASA ETA KENKARIAK

%16, %7 eta %4ko zerga tasei lotutako eragiketen oinarri ezargarria 3.695.662 milioi pezetakoa izan da 2000ko ekitaldian, eta sortutako kuota, berriz, 532.396 milioi pezetakoa. Horrek %14,41eko batez besteko karga tasa eman du ekitaldi honetan. Aurreko ekitaldiarekin konparatuz gero, oinarri ezargarria %11,9 gehitu da eta sortutako kuotak zerbait gehiago egin du gora, %12 hain zuzen. Horren ondorioz, batez besteko karga tasa ehuneneko bat igo da 1999koaren aldean, %14,40koa izan baitzen orduan.

Baliokidetasun errekarguen oinarri ezargarria 77.046 milioi pezetakoa izan da, eta sortutakoa kuota 1.490 milioi pezetakoa. Horren ondorioz, batez besteko karga tasa %1,93an gelditu da, 1999an lortutakoa baino bi ehunen portzentual gutxiago. Beherapen horrek eten egin du aurreko ekitaldietako goranzko joera.

Ekitaldi honetan, aurreko bi ekitaldietan gertatu bezala, Batasunaren barruko eskurapenak igo egin dira, eta portzentajerik altuenak lortu dituzte. Zehazki esanda, oinarri ezargarria 353.019 milioi pezetakoa izan da, 1999an lortutakoa baino 44.704 milioi gehiago (%14,5eko igoera). Sortutako kuotak, berriz, 7.249 milioi pezetako gehikuntza izan du, hau da, %15,8ko igoera termino portzentualetan. Batez besteko karga tasa, azkenik, %15,07koa izan da, 1999. urtean izandakoa baino hamazazpi ehunen portzentual handiagoa.

1997-2000 epealdian (ikus 5.3 taula), ekitaldiren batean gutxipenak izan dituen talde bakarra, hala oinarri ezargarrian, sortutako kuotan nola batez besteko

5.4. CUOTA DEVENGADA, TIPO MEDIO DE GRAVAMEN Y DEDUCCIONES

La base imponible de las operaciones sujetas a los tipos impositivos (16%, 7%, y 4%) en el ejercicio 2000 ha ascendido a 3.695.662 millones de pesetas, y la cuota devengada ha sido 532.396 millones de pesetas por lo que el tipo medio de gravamen para el ejercicio se ha situado en el 14,41%. En relación con el ejercicio anterior, la base imponible ha aumentado un 11,9% y la cuota devengada se ha incrementado algo más, el 12%, lo que ha originado que el tipo medio de gravamen se haya elevado un centésima con respecto al 14,40% en 1999.

La base imponible correspondiente a los recargos de equivalencia se ha situado en 77.046 millones de pesetas y ha obtenido una cuota devengada de 1.490 millones de pesetas, con lo que el tipo medio de gravamen ha sido del 1,93%, dos centésimas porcentuales inferior al correspondiente a 1999. Este descenso rompe la tendencia ascendente de los ejercicios anteriores.

Las adquisiciones intracomunitarias, al igual que en los dos ejercicios precedentes, en 2000 aumentan y alcanza los porcentajes más elevados de crecimiento. Concretamente, la base imponible ha ascendido a 353.019 millones de pesetas, superior en 44.704 millones a la alcanzada en 1999, obteniendo una tasa del 14,5%. La cuota devengada ha aumentado en 7.249 millones de pesetas, que en términos porcentuales supone un incremento del 15,8%. El tipo medio de gravamen se ha situado en el 15,07%, diecisiete centésimas porcentuales superior al existente en 1999.

A lo largo del periodo 1997-2000, recogido en el cuadro 5.3., el único grupo que presenta disminuciones en algún ejercicio, tanto en su base imponible como en su

CUADRO 5.3. TAULA

Sortutako BEZa eta batez besteko karga tasa erregimen orokorrean IVA devengado y tipo medio de gravamen en régimen general

KONTZEPTUA	CONCEPTO	1997	1998	1999	2000	%		
						98/97	99/98	00/99
Tasa orrok.oinarri ezargarria	Base imponible tipos generales	2.655.398	3.011.352	3.301.182	3.695.662	13,4	9,6	11,9
Sortutako kuota	Cuota devengada	378.862	432.036	475.293	532.396	14,0	10,0	12,0
Batez besteko karga tasa	Tipo medio gravamen	14,27	14,35	14,40	14,41	0,6	0,4	0,1
Baliok.errek.oinar.ezargarria	Base imponible recargo equival.	86.446	90.627	76.073	77.046	4,8	-16,1	1,3
Sortutako kuota	Cuota devengada	1.630	1.718	1.487	1.490	5,4	-13,5	0,2
Batez besteko karga tasa	Tipo medio gravamen	1,89	1,90	1,95	1,93	0,6	3,1	-1,1
Bat.barruko eskur.oin.ezargar.	Base imponible adq.intracomunit.	245.729	279.582	308.315	353.019	13,8	10,3	14,5
Sortutako kuota	Cuota devengada	36.428	41.648	45.960	53.209	14,3	10,4	15,8
Batez besteko karga tasa	Tipo medio gravamen	14,82	14,90	14,91	15,07	0,5	0,1	1,1

Zenbatekoa milioi pezetakotan / Importe en millones de pesetas

karga tasa, baliokidetasun errekarquen taldea da. Lehen bi kontzeptuak 1999an jaitsi dira, %16,1a oinarri ezargarrian eta %13,5a sortutako kuotan. Aldiz, hirugarren kontzeptuak azken ekitaldian egin du behera, batez besteko karga tasa %1,95etik %1,93ra pasatu baita, urtearteko beherapena %1,1ekoa izanik.

Beste bi taldeek kontzeptu guztietan egin dute gora ekitaldian zehar, nahiz eta kasu bietan igoera horiek 1999an arintzen diren azken ekitaldian berriz ere gora egiteko. Alabaina, tasa orokorren taldeak 2000. urtean izan duen gehikuntza motelagoa den bitartean, Batasunaren barruko eskurapenek 1998ko tasak gainditu dituzte.

Tasa orokorren taldean aztertutako hiru elementuek 1998an izan dute gehikuntzarik handiena. 1999an igoera txikiagoa izan ondoren, 2000ko ekitaldian tasek gora egin dute berriz, eta bakar-bakarrik batez besteko karga tasa gehitu da urte horretan baino gutxiago.

Azken taldeak ere, hau da, Batasunaren barruko eskurapenei dagokienak, hazkunde positiboa izan du ekitaldian, 1999ko tasak gainditzeraino. Hala ere, aurreko taldeetan ez bezala, honetan 2000ko igoera 1998koa baino handiagoa da. Bestalde, bai oinarri ezargarriaren eta bai sortutako kuotaren hazkunde tasak beste bi taldeetan izandakoak baino handiagoak izan dira epealdian. Batez besteko karga tasa, hiru taldeetan altuena, tasa orokorren eta baliokidetasun errekarquen batez besteko karga tasarekin konparatzen badugu gutxiago gehitu da bai 1998an eta bai 1999an.

5.4. taulan ikus daitekeenez, 2000n 504.023 milioi pezetako kenkariak egin dira erregimen orokorrean, 69.322 milioi pezeta gehiago aurreko ekitaldian baino. Horrek %15,9ko gehikuntza ekarri du, aurreko bi ekitaldietan izandako bariazio tasa gaindituz.

cuota devengada y en su tipo medio de gravamen, ha sido el que engloba los recargos de equivalencia. Los dos primeros conceptos descienden en 1999, concretamente hay un decremento interanual del 16,1% en la base imponible y del 13,5% en la cuota devengada. El tercer concepto, sin embargo, desciende en el último ejercicio ya que el tipo medio de gravamen pasa del 1,95% al 1,93%, lo que supone un decremento interanual del 1,1%.

Los otros dos grupos presentan aumentos en todos sus conceptos a lo largo del periodo y, en ambos casos, los incrementos alcanzados se suavizan en 1999 para volver a aumentar en el último ejercicio. Pero, mientras que en el grupo de los tipos generales el aumento de 2000 es menos acentuado, las adquisiciones intracomunitarias superan las tasas obtenidas en 1998.

Los tres elementos analizados en el grupo de los tipos generales presentan el crecimiento más elevado en 1998. Tras el menor aumento de 1999, vuelven a elevarse las tasas en el año 2000, siendo únicamente el tipo medio de gravamen el que presenta un crecimiento inferior al de dicho año.

El último grupo, el correspondiente a las adquisiciones intracomunitarias, también muestra un crecimiento positivo en el periodo y supera a las tasas de 1999. Pero, a diferencia de los anteriores, el aumento en 2000 es mayor que el alcanzado en 1998. Por otro lado, a lo largo del periodo las tasas de crecimiento obtenidas tanto de la base imponible como de la cuota devengada han sido más elevadas en comparación con las de los otros dos grupos. El tipo medio de gravamen, el más elevado entre los tres grupos, obtiene un menor crecimiento en 1998 y 1999 tanto con respecto al del tipo general como al de los recargos de equivalencia.

En 2000, las deducciones aplicadas en el régimen general, según muestra el cuadro 5.4., han ascendido a 504.023 millones de pesetas, 69.322 millones de pesetas más que en el ejercicio anterior lo que supone un incremento del 15,9%, tasa de variación superior a la obtenida en los dos ejercicios anteriores.

CUADRO 5.4. TAULA
BEZaren kenkariak erregimen orokorrean
IVA total deducciones del régimen general

KENKARIAK	DEDUCCIONES	1997	1998	1999	2000	%		
						98/97	99/98	00/99
Barne eragiketak	Operaciones Interiores	298.975	342.325	375.182	429.714	14,5	9,6	14,5
Inportazioak	Importaciones	11.418	13.276	13.300	20.909	16,3	0,2	57,2
Elkarte barruko eskurapenak	Adq. intracomunitarias	36.355	41.629	45.928	53.102	14,5	10,3	15,6
N.A. eta A.ko Erregimen Berezia	Rég. Esp. Agr. Gan. y Pesca	304	359	291	298	18,0	-19,0	2,5
KENKARIAK GUZTIRA	TOTAL DEDUCCIONES	347.052	397.589	434.701	504.023	14,6	9,3	15,9

Zenbatekoa milioi pezetakotan / Importe en millones de pesetas

Kenkari mota desberdinak aztertuz, esan behar da garrantzitsuenak barruko eragiketak direla, epealdian egindako kenkari guztien %85,3tik gora hartzen baitute. 2000n 54.532 milioi pezetatan gehitu dira, hau da, 429.714 milioi pezetako kenkariak egin dira guztira, aurreko urtean baino %14,5 gehiago (tasa horrek 1998koa berdintzen du eta 1999koa gainditzen). Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza erregimen berezitik datorren kenkaria %2,5 baino ez da hazi; aurreko ekitaldian -%19koa izan zela kontuan harturik, tasa hori ez da makala, 1998an lortutakotik oso urrun badago ere.

Bestalde, kanpoko merkatzaritzarekin zerikusia duten kenkariak epealdiko hazkunderik handiena izan dute. Inportazioen kenkaria, 1999an %0,2 baino gehitu ez zena, 7.609 milioi pezeta handiagoa izan da 2000ko ekitaldian, eta %57,2ko tasa lortu du urte batetik bestera. Era berean, Batasunaren barruko eskurapenak 7.174 milioi pezeta gehitu dira eta urtearteko hazkundera tasa %15,6koa izan da, bost puntu portzentualetik gora aurreko urteko hazkunderaren aldean.


Sortutako kuota eta kenkari guztiek (erregimen orokorrekoak eta erregimen erraztukoak) 1997-2000 epealdian izan duten bilakaera konparatzen badugu (ikus 5.1. grafikoa), bi kontzeptuok antzeko eboluzioa izan dutela antzeman daiteke, hau da, gora egiten dutela ekitaldi guztietan, nahiz eta igoerarik handiena azken ekitaldian gertatu. 1999. urtea alde batera uzten badugu, kenkariak sortutako kuota baino gehiago igo dira, eta horren ondorioz, kuotaren gero eta portzentaje handiago batek izan du kenkaria.

Analizando los tipos de deducciones, las operaciones interiores son las más importantes ya que a lo largo del periodo representan más del 85,3% del total deducido. En 2000 han aumentado en 54.532 millones de pesetas, situándose en 429.714 millones de pesetas, con un incremento del 14,5% con respecto al año anterior, tasa que iguala a la obtenida en 1998 y que supera a la alcanzada en 1999. La deducción proveniente del régimen especial de agricultura, ganadería y pesca aumenta únicamente un 2,5%, tasa elevada en comparación al -19% del ejercicio anterior aunque muy alejada de la obtenida en 1998.

Por su parte, las deducciones relacionadas con el comercio exterior han tenido en 2000 el mayor crecimiento del periodo. La deducción por importaciones, tras un bache en 1999 en que apenas creció un 0,2%, en 2000 ha incrementado su cuantía en 7.609 millones de pesetas obteniendo una tasa interanual del 57,2%. Así mismo, la deducción por adquisiciones intracomunitarias ha aumentado en 7.174 millones y alcanza un incremento interanual del 15,6%, superando en más de cinco puntos porcentuales el crecimiento del año anterior.

Si se compara la evolución de la cuota devengada y de las deducciones totales (régimen general y régimen simplificado) para el periodo 1997-2000, recogido en el gráfico 5.1., se puede apreciar una evolución paralela en ambos conceptos, con aumentos en todos los ejercicios presentando en el último el incremento superior. A excepción del ejercicio 1999, los aumentos de la deducción han sido superiores a los de la cuota devengada, por lo que cada vez se ha ido deduciendo un mayor porcentaje de la cuota.

GRÁFICO 5.1. GRAFIKOA
Sortutako kuotaren eta kenkarien bilakaera
Evolución de la cuota devengada y de las deducciones



1997an 347.120 milioi pezetako kenkariak egin ziren eta 421.073 milioi pezetako kuota sortu zen (%82,4 guztira). Erlazio hori hurrengo urtean areagotu zen 479.726 milioi pta.ko kuota eta 398.835 milioi pta.ko kenkariak lortzean (%83,1). 1999. urtean, ordea, sortutako kuota kenkariak baino gehiago hazi zen eta portzentajeak hiru dezima portzental galdu zituen %82,8ra iristeraino. Azken ekitaldian, kenkariak berriro gehitu dira kuota baino gehiago. Azken hau 590.042 milioi pezetakoa izan da, eta kenkari guztiak 505.001 milioi pezetakoa; hori dela eta, urte horretan lortutako portzentajea aurreko urtean lortutakoa baino hiru dezima portzental handiagoa da, hau da, 2000. urtean aplikatutako kenkaria sortutako kuota osoaren %85,6koa izan da.

5.5. ZERGAREN EMAITZA

2000ko BEZaren likidazioak 134.502 milioi pezetako sarrerak eta 44.390 milioi pezetako itzulketak sortu ditu. Geroko sortzapenak konpentsatzeko erabili diren kopuruetan 5.069 milioiko diferentzia egon da aurreko urtearen aldean. Sarrerei itzulketak eta konpentsazioen gehikuntza kenduz gero, Gipuzkoako Lurralde Historikoari egotzitako emaitza ateratzen da. 5.5. taulan erakusten dugun emaitza hori 85.043 milioi pezetakoa izan da 2000n, hau da, aurreko urtean baino 5.794 milioi pezeta gutxiago. Termino erlatiboetan, -%6,4ko bariazio tasa eman du horrek urte batetik bestera.

1997-2000 epealdian zehar Gipuzkoari egotzitako emaitza osoak goranzko bilakaera izan du eta hazkunde gero eta handiagoak lortu ditu. 1998an %9,4ko tasa izatetik 1999an %12,3ko tasa izatera pasa da, epealdiko altuena. Azken ekitaldian joera hori apurtu eta %6,4 jaitsi da emaitza, batik bat itzulketen eta konpentsatu beharreko gehikuntzaren hazkunde handiagotatik.

En 1997 las deducciones ascendían a 347.120 millones de pesetas que, frente a una cuota devengada de 421.073 millones, suponían un 82,4%. Esta relación aumenta en el año siguiente hasta el 83,1%, con una cuota que asciende a 479.726 millones de pesetas y unas deducciones de 398.835 millones. Sin embargo, en 1999 la cuota devengada crece más que las deducciones y el porcentaje desciende tres décimas porcentuales hasta el 82,8%. En el último ejercicio las deducciones vuelven a incrementarse más que la cuota. Ésta asciende a 590.042 millones de peseta y las deducciones totales son 505.001 millones, por lo que el porcentaje alcanzado en este año se sitúa casi tres puntos porcentuales por encima del obtenido el año anterior, es decir, en 2000 ha sido deducido el 85,6% del total de la cuota devengada.

5.5. RESULTADO DEL IMPUESTO

En 2000 la liquidación del impuesto genera unos ingresos por valor de 134.502 millones de pesetas, unas devoluciones por importe de 44.390 millones de pesetas, y una diferencia, con respecto del año anterior, de las cuantías destinadas a compensar futuros devengos del impuesto por importe de 5.069 millones de pesetas. El resultado de restar a los ingresos las devoluciones y el incremento de las compensaciones da lugar al resultado atribuido al Territorio Histórico de Gipuzkoa, recogido en el cuadro 5.5., y que asciende a 85.043 millones de pesetas, 5.794 millones de pesetas inferior al obtenido en 1999, lo que en términos relativos supone una tasa de variación interanual del -6,4%.

A lo largo del periodo 1997-2000, el resultado total atribuido al Territorio Histórico evoluciona de manera ascendente obteniendo incrementos cada vez más altos, ya que del 9,4% de 1998 pasa al 12,3% en 1999, la tasa más elevada del periodo. Sin embargo, en el último ejercicio se rompe esta tendencia y el resultado desciende un 6,4%, debido principalmente al mayor aumento de las devoluciones y del incremento a compensar.

CUADRO 5.5. TAULA

Gipuzkoako Lurralde Historikoari egotzitako emaitza
Resultado atribuido al Territorio Histórico de Gipuzkoa

EMAITZAK	RESULTADOS	1997	1998	1999	2000	%		
						98/97	99/98	00/99
Ordaindu beharrekoa	A ingresar	104.639	118.394	128.529	134.502	13,1	8,6	4,6
Itzuli beharrekoa	A devolver	28.226	34.859	35.557	44.390	23,5	2,0	24,8
Kompentsatu behar. gehikuntza	Incremento a compensar	2.461	2.645	2.135	5.069	7,5	-19,3	137,5
GUZTIRA	TOTAL	73.953	80.890	90.837	85.043	9,4	12,3	-6,4

Zenbatekoa milioi pezetakotan / Importe en millones de pesetas

Emaitzaren osagaiak aztertuz, esan dezagun epealdian tasa positiborik ez duen elementu bakarra konpentsatu beharreko gehikuntza dela. 1999an %19,3 egiten du behera, baina hurrengo urtean bikoiztu egiten du bere zenbatekoa %137,5eko igoera lortzean. Itzulketek eta sarrerak hazkunde tasa positiboak izan dituzte aztertutako ekitaldi guztietan, nahiz eta euren portaera desberdina izan den: sarrerak apurka-apurka motelduz joan diren bitartean, itzulketek hazkunde txikia izan dute 1999an (%2), nahiz eta 2000ko ekitaldian berriro nabarmen gora egiten duten %24,8ra iristeraino, 1998an lortutako %23,5eko tasa gaindituz.

Emaitzaren bilakaera hau 5.2. grafikoak erakusten digu. Bertan ikus daitekeenez, emaitzak 1998. eta 1999. urteetan lortu ditu gehikuntzarik handienak, bigarren urtean modu nabarmenagoan. Hazkunde handiago horren arrazoia gehiago izan da kenkariaren gehikuntza txikiagoa sarreraren gehikuntza handiagoa baino. 2000n, sarreraren gehikuntza txikiagoak eta, batez ere, kenkariaren igoera handiak emaitza jaistea ekarri du, epealdiko lehen murrizpena urte horretan gertatu delarik.


Lurralde Historikoaren emaitza subjektu pasiboek erabiltzen duten tributazio erregimenaren arabera aztertuz gero (ikus 5.6 taula), 2000ko emaitzaren beherakada esportatzaileen portaeraren ondorioz

Analizando los componentes del resultado, el único elemento que no mantiene tasas positivas en el periodo es el incremento a compensar que desciende en 1999 un 19,3%, y duplica su cuantía al año siguiente incrementándose un 137,5%. Tanto las devoluciones como los ingresos mantienen tasas positivas de crecimiento en todos los años recogidos, aunque muestran distinto comportamiento, ya que frente a una desaceleración progresiva de los ingresos, las deducciones presentan un bajo crecimiento en 1999 (2%) para luego volver a aumentar de forma elevada en 2000 hasta el 24,8%, superando la tasa del 23,5% obtenida en 1998.

Esta evolución del resultado también se muestra en el gráfico 5.2. en el que se puede apreciar que los mayores incrementos del resultado se dan en 1998 y 1999 siendo claramente más elevado en el segundo año. La razón de este mayor aumento se debe más al menor crecimiento de las deducciones que a un mayor incremento de los ingresos. En 2000, el menor crecimiento de los ingresos y, sobre todo, el elevado aumento de las deducciones ocasiona el descenso del resultado, que presenta un reducción por primera vez en el periodo.

Si analizamos el resultado del Territorio Histórico según el régimen tributario bajo el que declaran los sujetos pasivos, recogido en el cuadro 5.6., se aprecia que el descenso del resultado en 2000 se debe al

GRÁFICO 5.2. GRAFIKOA
Emaitzaren bilakaera
Evolución del resultado



gertatu dela ohar gaitezke. Subjektu pasibo horiek, erregimen orokorrean hileko aitortpena egiten dutenek, emaitza negatiboa ageri dute epealdian zehar, azken ekitaldian areagotzen dena: 1999. urtearekin konparatuta 10.726 milioi pezeta txikiagoa izan da (-%153ko tasa urte batetik bestera). Hain zuzen ere, esportatzaileak dira, erregimen erraztuan dauden subjektu pasiboekin batera, aurreko ekitaldiaren aldean emaitza txikiagoa izan duten bakarrak. Hala ere, erregimen erraztuan aitortzen dutenekin gertatzen ez den bezala (erregimen horretako aitortzaile kopurua jaitsi egiten da gainera), esportatzaileen kasuan emaitzaren beherakada itzulketak gehitzeagatik gertatu da. Horren bilakaera hurrengo apartatuan aztertzen dugu.

Erregimen orokorraren barruan enpresa handiak eta hiruhileko aitortpenak aurkezten dituzten gainerako subjektu pasiboak ere sartzen dira. Emaitzari dagokionez, zenbatekorik handiena (%79,6) gainerako subjektu pasiboen taldean aurkitzen da, eta zergadun kopururik handiena ere talde horrek hartzen du. Enpresa handiak, ordea, aitortzaile kopuru osoaren %1,1 baino ez dira eta ekitaldiko emaitzaren %39,2a hartzen dute. Bi taldeek bilakaera desberdina izan dute epealdian zehar. Enpresa handiak 1998an jaitsi ondoren, nabarmen egiten dute gora hurrengo urtean, eta 2000ko ekitaldian %1,7ko igoera lortzen dute soilik. Aldiz, erregimen orokorraren arabera aitortzen duten gainerako subjektu pasiboek 1998an lortzen dute hazkunderik handiena, eta 1999an %2,9 bakarrik igo ondoren, azken ekitaldian %8,5eko igoera lortzen dute. Talde hau dugu epealdian tasa negatiborik izan ez duen bakarra.

comportamiento de los exportadores. Estos sujetos pasivos, que bajo el régimen general presentan sus declaraciones mensualmente, mantienen a lo largo del periodo un resultado negativo que se acentúa en el último ejercicio en que desciende en 10.726 millones de pesetas con respecto a 1999 alcanzando una tasa interanual del -153%. Son, junto con los sujetos del régimen simplificado, los únicos que presentan un resultado inferior al del ejercicio anterior. Pero, a diferencia de los sujetos acogidos al régimen simplificado que presentan una disminución del número de declarantes que se acogen a este régimen, en el caso de los exportadores se debe al incremento de sus devoluciones cuya evolución se analiza el apartado siguiente.

Dentro del régimen general se encuentran además las grandes empresas y el resto de sujetos pasivos que presentan declaraciones trimestralmente. La mayor cuantía en cuanto al resultado (79,6%) se concentra en estos últimos que son también donde se agrupa el mayor número de contribuyentes. Las grandes empresas, en cambio, representan sólo el 1,1% del total de declarantes y concentran el 39,2% del resultado del ejercicio. A lo largo del periodo ambos grupos presentan una evolución dispar. Las grandes empresas tras descender en 1998 aumentan de forma considerable al año siguiente y apenas un 1,7% en 2000. Por el contrario, el resto de los declarantes sujetos al régimen general presentan su mayor incremento en 1998 y tras aumentar sólo un 2,9% en 1999 vuelven a crecer un 8,5% en el último ejercicio, siendo el único grupo que no presenta tasas negativas en el periodo.

CUADRO 5.6. TAULA

Gipuzkoako Lurralde Historikoari egotzitako emaitza tributazio erregimenaren arabera
Resultado atribuido al Territorio Histórico de Gipuzkoa según el régimen de tributación

TRIBUTAZIO ERREGIMENA	RÉGIMEN TRIBUTARIO	GIPUZKOARI EGOTZITAKO EMAITZA RESULTADO ATRIBUIDO A GIPUZKOA				% ALDAKETA TASA VARIACIÓN EN %		
		1997	1998	1999	2000	98/97	99/98	00/99
Erregimen Orokorra	Régimen General	70.046	77.943	88.160	83.283	11,3	13,1	-5,5
Enpresa handiak	Grandes empresas	30.303	27.637	32.782	33.326	-8,8	18,6	1,7
Exportatzaileak	Exportadores	-7.034	-10.339	-7.009	-17.734	-47,0	32,2	-153,0
Bestelakoak (*)	Resto (*)	46.778	60.645	62.387	67.691	29,6	2,9	8,5
Erregimen Erraztua	Régimen Simplificado	3.907	2.947	2.677	1.760	-24,6	-9,2	-34,3
GUZTIRA	TOTAL	73.953	80.890	90.837	85.043	9,4	12,3	-6,4

Zenbatekoa milioi pezetakotan / Importe en millones de pesetas

(*) 2000an bi erregimenei lotuta egon diren 301 zergadun, 1999ko 304, 1998ko 338 eta 1997ko 452 sartu ditu.

(*) Incluye 301 contribuyentes que están sometidos a los dos regímenes en 2000, 304 en el ejercicio 1999, 338 en 1998 y 452 en 1997.

5.6. ESPORTATZAILEEI ITZULITAKOA

BEZari buruzko araudiaren arabera, subjektu pasiboek aurreko lehen urte naturalean edo dauden urte naturalean zehar BEZaren araudiak salbuesten dituen esportazio eragiketak edo esportazioaren pareko eragiketak egin badituzte eta horien zenbateko osoa hogeituz mila pezetatik gorakoa bada, subjektu pasibo horiek eskubidea izango dute likidazioaldi bakoitzaren amaieran (esportatzaileek hileroko aurkezten dute aitorpena) beren alde ateratzen den saldoa berreskuratzeko. Epealdi horretako eragiketen zenbateko osoari BEZaren zerga tasa orokorra aplikatuz ateratzen den mugaraino egingo da itzulketa.

1997-2000 epealdian zehar (ikus 5.7. taula), eta zergaren mekanika dela eta, abenduan jauzi bat gertatzen da zenbatekoan bi arrazoiengatik: batetik, hilabete hori azken likidazioaldia delako eta horretan ez dagoelako itzulketa mugarik, eta bestetik, ekitaldian zehar konpentsatu beharreko saldoak ekartzea erabakitzen dutenen eskaerak une horretan pilatzen direlako.

Epealdi honetan igoerak izan dira bai eskaera kopuruan eta bai itzulketen zenbatekoan. Antzeko portaera ageri da bietan. Eskaerei dagokienez, 1998an %6,5 gehitu ondoren, hurrengo urtean %2,9raino jaisten dira, eta 2000. urtean gora egiten dute berriro %7,6ko hazkundea lortuz. Itzulketen zenbatekoak ere hazkunde txikiagoa ageri du 1999an, eta hurrengo urtean nabarmen egiten du gora; bere hazkundea honela joan da azken hiru urteetan: %15,9 1998an, %4,8 1999an eta %24,5 2000. urtean. Bi osagaiak batera aztertuz gero, agerian geratzen da epealdian zehar itzulketen zenbatekoa aurkeztutako itzulketa eskaerak baino gehiago gehitu dela.

5.6. DEVOLUCIONES A EXPORTADORES

En base a la normativa del impuesto, los sujetos pasivos que, durante el año natural inmediato anterior o durante el año natural en curso, hubieran realizado operaciones de exportación o asimiladas a exportaciones que por la normativa del impuesto estén exentas, por un importe global superior a veinte millones de pesetas, tendrán derecho a la devolución del saldo a su favor existente al término de cada periodo de liquidación (los exportadores presentan declaraciones mensuales) hasta el límite resultante de aplicar el tipo impositivo general del impuesto al importe total, en dicho periodo, de las mencionadas operaciones.

A lo largo del periodo 1997-2000, recogido en el cuadro 5.7., y debido a la mecánica del impuesto, en el mes de diciembre se produce un salto en la cuantía por dos motivos; por un lado, dicho mes es el último periodo de liquidación y en él no existe límite a la devolución, y, por otro lado, se concentra en ese momento la solicitud de aquellos que han optado por arrastrar saldos a compensar a lo largo del ejercicio.

En el periodo aumentan tanto el número de solicitudes como el importe de las devoluciones, y presentan un comportamiento similar. Las solicitudes tras aumentar un 6,5%, descienden su tasa hasta el 2,9% al año siguiente para volver a aumentar en 2000 un 7,6%. La cuantía de la devolución también presenta un menor crecimiento en 1999 incrementándose de forma considerable al año siguiente, ya que pasa de un crecimiento del 15,9% en 1998 a un 4,8% en 1999 y vuelve a elevar su tasa hasta el 24,5% en 2000. Analizando conjuntamente ambos componentes se aprecia que a lo largo del periodo el incremento de la cuantía es superior al crecimiento del número de las solicitudes de devolución presentadas.

CUADRO 5.7. TAULA

Esportatzaileei itzulitako BEZaren bilakaera sortzapen hilabeteen arabera
Evolución de las devoluciones de IVA a exportadores por meses de devengo

HILABETEAK	MESES	1997		1998		1999		2000	
		Kopurua Número	Itzulketa Devolución	Kopurua Número	Itzulketa Devolución	Kopurua Número	Itzulketa Devolución	Kopurua Número	Itzulketa Devolución
Urtarrila	Enero	367	1.029	387	1.371	403	1.335	425	1.276
Otsaila	Febrero	366	1.291	387	1.770	401	1.603	425	2.076
Martxoa	Marzo	380	1.433	404	1.867	414	2.024	441	2.541
Apirila	Abril	365	1.730	394	2.076	409	1.967	437	2.258
Maiatza	Mayo	364	1.445	394	1.893	406	2.109	436	2.482
Ekaina	Junio	382	1.849	405	1.969	416	1.868	447	2.978
Uztaila	Julio	368	1.891	397	2.387	406	2.259	436	2.461
Abuztua	Agosto	368	788	397	963	408	1.392	439	1.709
Iraila	Septiembre	376	1.924	401	2.155	408	2.311	447	2.796
Urria	Octubre	374	2.042	398	2.415	407	1.951	446	2.745
Azaroa	Noviembre	373	1.721	397	2.030	407	2.098	446	2.626
Abendua	Diciembre	385	4.000	397	3.604	413	4.768	447	6.041
GUZTIRA	TOTAL	4.468	21.141	4.758	24.500	4.898	25.685	5.272	31.989

Zenbatekoa milioi pezetakotan / Importe en millones de pesetas

5.7. BEZa AITORTZAILE MOTAREN ARABERA

5.8. taulak erakusten duenez, 2000. urtean zergadun gehien bildu duen aitortzaile mota pertsona fisikoena da: guztira 36.419 zergadun dira, hau da, kopuru osoaren %65,4. Bigarren tokian, erantzukizun mugatuko sozietateak daude (%17,4), jarraian ondasun komunitateak datoz (%8,4) eta, azkenik, sozietate anonimoak agertzen dira zergadun kopuru osoaren %6arekin.

Ekitaldiko oinarri ezargarria 4.125.727 milioi pezetakoa izan da eta bere banaketa dexente aldatzen da zergadun kopuruaren banaketaren aldean, zenbatekorik handienak sozietate mota desberdinen artean aurkitzen baitira: oinarri ezargarri osoaren %55,5a sozietate anonimoena da, %26,2a erantzukizun mugatuko sozietateena eta %10,1a kooperatibena. Pertsona fisikoek oinarri ezargarri osoaren %4,4a hartzen dute.

Sortutako kuota 590.042 milioi pezetakoa da, eta subjektu pasiboen mota desberdinen partaidetza portzentajea oinarri ezargarriak izan duenaren parekoa da: %93,9a sozietateetatik dator, %1,6a ondasun komunitateetatik, eta gainerako %4,5a, berriz, pertsona fisikoetatik.

Kenkariak aplikatu eta bidezko banaketa egin ondoren, Gipuzkoako Lurralde Historikoari egotzitako emaitza 85.043 milioi pezetakoa da. Zenbateko horretatik %52,3a (44.502 milioi pezeta) sozietate anonimoetatik dator, %28,5a (24.255 milioi pezeta) erantzukizun mugatuko sozietateetatik eta %13,5a (11.519 milioi) pertsona fisikoetatik.

5.7. IVA SEGÚN TIPO DE DECLARANTE

En el ejercicio 2000, según muestra el cuadro 5.8., el tipo de declarante que mayor número concentra es el de las personas físicas que con 36.419 contribuyentes representan el 65,4% del total. El segundo en importancia, que representa el 17,4%, son las sociedades de responsabilidad limitada, le siguen las comunidades de bienes con el 8,4% del total y posteriormente las sociedades anónimas al englobar el 6% del total de contribuyentes.

La base imponible del ejercicio asciende a 4.125.727 millones de pesetas y su distribución varía considerablemente en relación con la del número de contribuyentes ya que las mayores cuantías se centran en los diferentes tipos de sociedades: el 55,5% del total de la base imponible corresponde a las sociedades anónimas, el 26,2% a las sociedades de responsabilidad limitada, y el 10,1% a las cooperativas. Las personas físicas representan el 4,4% del total de la base imponible.

La cuota devengada ha supuesto 590.042 millones de pesetas, y el porcentaje de participación de los distintos tipos de sujetos pasivos es similar al de la base imponible concentrándose el 93,9% en las sociedades, un 1,6% le corresponde a las comunidades de bienes, y el restante 4,5% proviene de las personas físicas.

Después de aplicar las deducciones y de realizar la distribución correspondiente, el resultado atribuido al Territorio Histórico de Gipuzkoa ha sido de 85.043 millones de pesetas. De dicha cuantía el 52,3%, 44.502 millones de pesetas, provienen de las sociedades anónimas, el 28,5%, 24.255 millones, de las sociedades de responsabilidad limitada, y el 13,5%, 11.519 millones de pesetas, corresponde a las personas físicas.

CUADRO 5.8. TAULA
BEZa aitortzaile motaren arabera
IVA según tipo de declarante

AITORTZAILE MOTA	TIPO DE DECLARANTE	AITORTZAILE KOPURUA NÚMERO CONTRIBUYEN.	OINARRI EZARG. GUZT. BASE IMPON. TOTAL	SORTUTAKO KUOTA GUZT. TOTAL CUOTA DEVENGADA	ZERGAREN EMAITZA RESULTADO IMPUESTO
Soz. Anonimoak	Sdad. Anónimas	3.313	2.291.422	337.576	44.502
Erantzuk. Mugat. Soz.	Sdad. Responsab. Lim.	9.699	1.079.011	147.293	24.255
Soz. Kooperatiboak	Sdad. Cooperativas	462	415.346	58.667	-98
Gainerako Sozietateak	Resto de Sociedades	1.093	82.667	10.409	1.678
Sozietate Guztira	Total Sociedades	14.567	3.868.446	553.944	70.337
Ondasun Komunitateak	Comunidades de Bienes	4.659	75.936	9.494	3.186
Pertsona Fisikoak	Personas Físicas	36.419	181.344	26.604	11.519
GUZTIRA	TOTAL	55.645	4.125.727	590.042	85.043

Zenbatekoa milioi pezetakotan / Importe en millones de pesetas

5.8. BEZa JARDUERA SEKTOREEN ARABERA

2000ko ekitaldiak aurreko ekitaldiaren pareko banaketa erakusten du, sektoreen arabera, Gipuzkoako zergadun kopuruan, oinarri ezargarrian, sortutako kuotan eta zergaren emaitzan.

5.9. taulak erakusten duenez, zergadunei dagokionez zerbitzuek hartzen dute kopururik handiena (%63,8), eta gehienbat merkataritzatik eta merkataritzako beste zerbitzuetatik datoz: bien artean sektoreko aitortzaile guztien %85,7a hartzen dute. Industriak eta eraikuntzak %10,7 eta %13,4 metatzen dute hurrenez hurren. Industriaren kasuan, zergadunak oso banatuta daude adar desberdinetan, aitortzaile kopururik handiena biltzen duena metalgaiena bada ere (1.260 aitortzaile guztira).

Ekitaldiko oinarri ezargarria 4.125.727 milioi pezetakoa izan da; horietatik %50,8a zerbitzuen sektorearena da eta %41,2a industriarena. Industri sektorearen barruan, makineriak lortu du oinarri ezagarririk handiena, eta horren ondoren metalgaiak eta material elektrikoa datoz. Zerbitzuen sektorean, berriz, merkataritzak %67,8a hartzen du, hau da, 1.420.464 milioi pezetako oinarri ezargarria; bigarren tokian merkataritzako beste zerbitzu batzuk ageri dira 369.597 milioi pezetako oinarri ezargarria dutela. Azkenik, eraikuntzak 309.382 milioi pezetako oinarri ezargarria agertzen du, hau da, kopuru osoaren %7,5a.

Sortutako kuotak zergadun kopuruan eta oinarri ezagarrarian dagoen banaketa bera mantentzen du, industriaren eta zerbitzu sektorearen arteko alde txikiagoa bada ere. Zehazki esateko, kuota osoaren %48,1a zerbitzuetan biltzen da eta %44,1 industriar. Sektore bakoitzaren barruan, adar bakoitzak duen partaidetzaren banaketa portzentuala oinarri

5.8. IVA POR SECTORES DE ACTIVIDAD

En el ejercicio 2000, la distribución por sectores del número de contribuyentes, la base imponible, la cuota devengada y el resultado correspondiente a Gipuzkoa se mantiene de forma similar al año anterior.

En cuanto a los contribuyentes, como se puede apreciar en el cuadro 5.9., la actividad con mayor número corresponde a los servicios que concentran el 63,8% del total siendo en su mayoría provenientes del comercio y de otros servicios comerciales, concentrando entre los dos el 85,7% del total de declarantes del sector. La industria y la construcción representan respectivamente el 10,7% y el 13,4% del total de declarantes. En el caso de la industria los contribuyentes están muy repartidos entre las distintas ramas siendo la de los artículos metálicos, con 1.260 declarantes, la que concentra el mayor número.

La base imponible del ejercicio asciende a 4.125.727 millones de pesetas de los que un 50,8% se concentra en los servicios y el 41,2% corresponde a la industria. Dentro de ella, la base imponible más elevada se encuentra en la maquinaria, seguida de los artículos metálicos y del material eléctrico. En el sector servicios, el comercio representa el 67,8% con una base imponible que asciende a 1.420.464 millones de pesetas, y otros servicios comerciales, que es el segundo en importancia, tiene una base imponible de 369.597 millones de pesetas. Por su parte, la construcción con sus 309.382 millones de pesetas representa el 7,5% de la base imponible total.

La cuota devengada mantiene la misma distribución que en el número de contribuyentes y en la base imponible, aunque la diferencia entre la industria y el sector servicios es inferior. Concretamente, los servicios concentran el 48,1% del total de la cuota, frente al 44,1% que representa la industria. Dentro de cada sector la distribución porcentual de la participación de cada

CUADRO 5.9. TAULA
BEZa jarduera sektoreen arabera
IVA por sectores de actividad

JARDUERA SEKTOREKA	SECTORES DE ACTIVIDAD	AITORTZAILE KOPURUA NÚMERO CONTRIBUYEN.	OINARRI EZARG. GUZT. BASE IMPON. TOTAL	SORTUTAKO KUOTA GUZT. TOTAL CUOTA DEVENGADA	ZERGAREN EMAITZA RESULTADO IMPUESTO
Nekaz.Abel.eta Arrantza	Agricult. Ganad. y Pesca	327	9.600	827	162
Industria	Industria	5.978	1.699.744	259.985	26.428
Eraikuntza	Construcción	7.456	309.382	43.564	9.613
Zerbitzuak	Servicios	35.481	2.095.229	283.923	49.797
Sailkatu gabeak	Sin clasificar	6.403	11.772	1.746	-958
GUZTIRA	TOTAL	55.645	4.125.727	590.042	85.043

Zenbatekoa milioi pezetakotan / Importe en millones de pesetas

ezargarriak duen banaketaren parekoa da. Eraikuntzak ere antzeko portzentajea du, eta sortutako kuota osoaren %7,4a hartzen du.

Gipuzkoari egotzitako emaitzaren banaketa zerbait aldatzen da aurreko kontzeptuen aldean; gehien aportatzen duena zerbitzuen sektorea da (%58,6), industria %31,1eraino jaisten da eta eraikuntzak gora egiten du emaitza osoaren %11,3ra iritsi arte. Zerbitzuen sektorearen barruan aurreko banaketa mantentzen da: zenbatekorik handiena merkataritzan ematen da, eta horren ondoren merkataritzako beste zerbitzu batzuk eta garraioa eta komunikazioak datoz. Industriari dagokionez, berriz, barruko banaketa aldatu egiten da, energia eta ura baita orain zenbatekorik handiena lortzen duen adarra (4.730 milioi pezeta). Emaitza hori ez da horrenbeste gertatu sarrera handiak lortu direlako (laugarren adarra baita garrantzian) itzulketen zenbatekoak txikiagoak izan direlako baizik. Sarrerarik handienak metalgaitan lortu dira, baina itzulketak ere handiak izan direnez, emaitzak bigarren tokian uzten du adar hau. Hirugarren postua material elektrikoaren adarrak hartzen du.

5.3 grafikoan zergaren emaitzak 1997-2000 epealdian izan duen bilakaera ikus daiteke jarduera sektoreen arabera banatuta. Industria eta zerbitzuen sektoreek hartzen duten garrantzia nabaria da bertan, bai eta lehen sektoreak zergan duen partaidetza eskasa ere. Grafikoan ikus daitekeenez, zerbitzuen sektoreak, zergan pisu gehien hartzen duenak, hazkunde jarraitua izan du epealdian zehar eraikuntzarekin batera. Industriaren kasuan, ordea, gorabehera handiagoak ageri dira: 1998an oso igoera xumea izan ondoren, sektore hau izan zen 1999an gehien hazi zena, eta azken ekitaldian %21 gutxitu du bere emaitza. Eraikuntzak, beste bi sektoreak bezain garrantzitsuak ez izan arren, nabarmen egin du gora epealdian.

Industriak 2.227 milioi pezetatan gutxitu du bere emaitza lau ekitaldietan, 1997an 28.654 milioikoa izatetik 26.428 milioikoa izatera pasa baita 2000. urtean; jaitsiera hori azken ekitaldian lortutako emaitzari zor zaio soil-soilik, 7.022 milioi pezeta txikiagoa izan baita (%21). Eraikuntza sektoreak 3.309 milioi pezetako gehikuntza izan du 1997. eta 2000. urte bitartean, eta lehen bi ekitaldietan bere urtearteko bariazioak gero eta handiagoak izan dira: 1998an %16,5 gehitzen da, eta 1999an %19,8. Azken ekitaldian, ordea, hazkunde moderatuagoa izan du (%9,3). Sektore honek lortu du 2000. urtean urtearteko gehikuntzarik handiena. Zerbitzuen sektoreak, bere aldetik, 10.865 milioi pezetatan gehitu du bere emaitza: 1997an 38.932 milioi pezetakoa izatetik 49.797 milioikoa izatera pasa da 2000n. Hazkunde tasek behera egin dute epealdian, eta horrela dugu nola 1998an %15,8koa den bitartean, 1999an %8ra jaisten den, azken ekitaldian %2,2koa delarik.

Industria eta zerbitzuen sektoreek hartzen duten garrantzia ikusirik, 5.4. eta 5.5. grafikoetan jaso dugu

rama es parecida a la distribución de la base imponible. La construcción mantiene también un porcentaje similar, representando el 7,4% del total de la cuota devengada.

La distribución del resultado atribuido a Gipuzkoa varía ligeramente con respecto a los conceptos anteriores siendo el de mayor aportación el sector servicios con un 58,6%, la industria disminuye hasta un 31,1% y la construcción se eleva a un 11,3% del total del resultado. Dentro del sector servicios se mantiene el orden anterior siendo el de mayor cuantía el comercio seguido de otros servicios comerciales y del transporte y comunicaciones. La industria, en cambio, varía su distribución interna ya que la rama de mayor cuantía es la de energía y agua con un resultado que asciende a 4.730 millones de pesetas. Dicho resultado no se debe tanto a los elevados ingresos, es la cuarta rama en orden a importancia, como a su baja cuantía en las devoluciones. El primer puesto en cuanto a ingresos corresponde a los artículos metálicos pero, al tener también unas devoluciones muy elevadas, el saldo del resultado le sitúa en segundo lugar. El tercer lugar lo ocupa la rama de material eléctrico.

La evolución del resultado del impuesto distribuido por sectores de actividad a lo largo del periodo 1997-2000, recogido en el gráfico 5.3., muestra la gran representatividad de los sectores industrial y de servicios así como la poca participación del sector primario en el impuesto. En el gráfico se puede apreciar que los servicios, que es el de mayor peso del impuesto, ha sido junto a la construcción el sector que mantiene un crecimiento continuo en el periodo. En cambio, la industria presenta más altibajos ya que tras aumentar muy poco en 1998 fue el sector con mayor crecimiento en 1999, y en el último ejercicio ha descendido su resultado un 21%. La construcción, aunque menos representativa que los otros dos sectores, presenta un crecimiento elevado en el periodo.

La industria en los cuatro ejercicios desciende en 2.227 millones el resultado pasando de 28.654 millones en 1997 a 26.428 millones en 2000, aunque este descenso se debe únicamente al resultado obtenido en 2000, año en que desciende en 7.022 millones de pesetas (el 21%). El sector de la construcción entre 1997 y 2000 aumenta en 3.309 millones de pesetas, con variaciones interanuales cada vez más elevadas en los dos primeros ejercicios, en 1998 crece un 16,5% y en 1999 un 19,8%, y con mayor moderación en el último en que aumenta un 9,3% siendo el sector con mayor incremento interanual del año 2000. Por su parte, el sector servicios pasa de un resultado que asciende a 38.932 millones de pesetas en 1997 a 49.797 millones de pesetas en 2000, incrementando su resultado en 10.865 millones de pesetas; las tasas de crecimiento bajan ligeramente en el periodo ya que del 15,8% en 1998 pasa a un 8% en 1999 y a un 2,2% en el último año.

Dada la representatividad de los sectores industrial y de servicio, los gráficos 5.4. y 5.5. recogen la contribución de

GRÁFICO 5.3. GRAFIKOA
Gipuzkoari egotzitako emaitza
Resultado atribuido a Gipuzkoa




GRÁFICO 5.4. GRAFIKOA
Industri sektorearen emaitza adarren arabera
Resultado del sector industrial por ramas





GRÁFICO 5.5. GRAFIKOA
Zerbitzuen sektorearen emaitza adarren arabera
Resultado del sector servicios por ramas



jarduera adar bakoitzak nor bere sektorean duen eragina eta 1997-2000 epealdian izan duten eboluzioa.

Industri sektorean biltzen diren hamalau jarduera adarrek oso eboluzio desberdina dute. 2000. urtean bi taldek bakarrik lortu dute emaitza gehitzea, batetik kautxo eta plastikoen adarrak (%15) eta, bestetik, zurgintza eta altzarigintzarenak (%7,2). Gainera, azken honek bakarrik lortu ditu igoerak epealdiko urte guztietan. Gainerako adarrek ekitaldian izan duten jaitsierak modu desberdinean eragin du epealdiko bilakaeran. Horrela, garraio materialaren industriak eta papera eta grafikagintzak beheranzko joerarekin jarraitu duten bitartean, industria ez metalikoak, metalezko eraikuntzak, metalgaiek eta makineriak eten egin dute beren hazkunde joera aurreko hiru ekitaldietan etengabe hazi eta gero. Bigarren talde honen barruan, beherakada portzentualik handiena (-%19,8) industria ez metalikoan aurkitzen dugu, eta tasa hori 1998an izandako emaitzaren azpitik gelditu da. Kuantitatiboki, metalgaiek izan dute gutxipenik handiena, 985 milioi pezetatan jaitsi baitu bere emaitza: 5.195 milioi 1999an eta 4.209 milioi 2000n (%19 gutxiago). Hala ere, tamainako jaitsiera hori ez da oztopo izan 1998ko emaitza gainditu dezan, eta, berez, bigarren adarrik garrantzitsuenak dugu energia eta uraren atzetik.

Emaitzan antzeko eboluzioa izan duen beste talde bat 1998an igo diren baina hurrengo bi urteetan behera egin duten jardueren taldea da. Talde honetan energia eta ura eta elikagaiak sartzen dira. Oso bestelako emaitza dute biek: lehen adarrak emaitzarik handiena lortu duen bitartean, elikagaien kasuan emaitza negatiboak ageri dira bigarren urtez (-1.491 milioi pezeta). Garraio materialaren industria bakarrik dauka aurretik, bere emaitza -1.659 milioi pezetakoa izan delako.

Laugarren taldea gorabehera handiagoak ageri dituzten jarduerena izango litzateke, hau da, 1998an jaitsi, 1999an igo eta 2000n berriro jaisten diren jarduerak osatuko lukete. Oinarrizko industria metalikoa, kimikagintza, ehun eta oinetakogintza eta material elektrikoa sartzen dira talde honen barruan. Lehen hiru kasuetan, 2000n izan duten jaitsierak epealdiko mailarik baxuenetan jartzen ditu. Ehun eta oinetakogintza, azken ekitaldi honetan apenas jaitsi dena, 1997an eta 1998an lortutako emaitza gainditu duen taldeko bakarra da.

Zerbitzuen sektorea sei jarduera adarretan banatzen da. Grafikoan ikus daitekeenez, diruetxe eta

cada rama de actividad dentro de su sector correspondiente así como su evolución en el cuatrienio 1997-2000.

Al analizar los datos sobre la participación de cada territorio histórico frente al total de la CAPV se aprecia el importante peso recaudatorio de Bizkaia, que en todos los años representa más de la mitad del total recaudado. Le sigue Gipuzkoa que supone un tercio del total y, por último está Alava con el 16,2% restante. En los cuatro años recogidos apenas hay variaciones, salvo un descenso en Bizkaia en los dos años intermedios que recupera en 2000, mejorando incluso en cuatro décimas su participación de 1997. Este aumento ha sido en detrimento sobre todo de Gipuzkoa que desciende en seis décimas porcentuales su participación, Alava sólo pierde dos décimas porcentuales.

Con respecto a la evolución de la recaudación en el periodo y dada la importancia recaudatoria de Bizkaia, la variación para el total de la comunidad autónoma es del mismo sentido que la de dicho Territorio Histórico aunque algo más suavizada. A nivel de la CAPV en 1998 aumenta un 14,5% para reducir su tasa al año siguiente hasta el 8,5%. En el último ejercicio la recaudación ha incrementado su ritmo en un punto hasta crecer el 9,5%. Por territorios se aprecia el mismo descenso en 1999 en los tres ámbitos, pero en 2000 mientras Alava y Gipuzkoa mantienen esta tendencia de desaceleración con el 7,9% y el 7,3% respectivamente, Bizkaia aumenta su ritmo hasta el 11,3%, tres puntos porcentuales superior a la tasa de 1999.

CUADRO 8.8. TAULA
Zerga itunduen bilketa osoa zerga kontzeptuen arabera
 Recaudación total tributos concertados por conceptos impositivos

EAE	CAPV	1997	1998	1999	2000
Zuzeneko zergak	Impuestos directos	473.915	541.994	573.275	613.754
Zeharkako zergak	Impuestos indirectos	496.571	569.678	634.646	709.466
Tasak eta bestelako sarrerak	Tasas y otros ingresos	13.066	14.738	14.435	14.592
GUZTIRA	TOTAL	983.552	1.126.409	1.222.357	1.337.813
Gauzen bidezko bilketa	Recaudación en especie	253	24	6	84
HFEKri ATXIKITAKO ZERGA	TOTAL TRIB.CONCERTADOS				
ITUNDUAK GUZTIRA	AFECTOS AL C.V.F.P.	983.805	1.126.433	1.222.363	1.337.897
<i>Pro memoria:</i>	<i>Pro memoria:</i>				
<i>Aldundiak kudea.ko zehar.zergak</i>	<i>Imp.indirectos gestión propia</i>	<i>376.975</i>	<i>438.531</i>	<i>484.048</i>	<i>538.454</i>
<i>Doik.tza bidezko zehark.ko zergak</i>	<i>Imp.indirectos vía ajustes</i>	<i>119.596</i>	<i>131.146</i>	<i>150.598</i>	<i>171.012</i>

Zenbatekoa milioi pezetakotan / Importe en millones de pesetas

CUADRO 8.9. TAULA
Zerga kontzeptuek bilketa osoan duten partaidetza
 Participación de los conceptos impositivos sobre el total recaudado

EAE	CAPV	1997	1998	1999	2000
Zuzeneko zergak	Impuestos directos	48,2	48,1	46,9	45,9
Zeharkako zergak	Impuestos indirectos	50,5	50,6	51,9	53,0
Tasak eta bestelako sarrerak	Tasas y otros ingresos	1,3	1,3	1,2	1,1
GUZTIRA	TOTAL	100,0	100,0	100,0	100,0
Gauzen bidezko bilketa	Recaudación en especie	0,0	0,0	0,0	0,0
HFEKri ATXIKITAKO ZERGA	TOTAL TRIB.CONCERTADOS				
ITUNDUAK GUZTIRA	AFECTOS AL C.V.F.P.	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Pro memoria:</i>	<i>Pro memoria:</i>				
<i>Aldundiak kudea.ko zehar.zergak</i>	<i>Imp.indirectos gestión propia</i>	<i>38,3</i>	<i>38,9</i>	<i>39,6</i>	<i>40,2</i>
<i>Doik.tza bidezko zehark.ko zergak</i>	<i>Imp.indirectos vía ajustes</i>	<i>12,2</i>	<i>11,6</i>	<i>12,3</i>	<i>12,8</i>

CUADRO 8.10. TAULA
Zerga itunduen bilakaera zerga kontzeptuen arabera
 Evolución de los tributos concertados por conceptos impositivos

EAE	CAPV	98/97	99/98	00/99
Zuzeneko zergak	Impuestos directos	14,4	5,8	7,1
Zeharkako zergak	Impuestos indirectos	14,7	11,4	11,8
Tasak eta bestelako sarrerak	Tasas y otros ingresos	12,8	-2,1	1,1
GUZTIRA	TOTAL	14,5	8,5	9,4
Gauzen bidezko bilketa	Recaudación en especie	-90,5	-74,9	1.300,0
HFEKri ATXIKITAKO ZERGA	TOTAL TRIB.CONCERTADOS			
ITUNDUAK GUZTIRA	AFECTOS AL C.V.F.P.	14,5	8,5	9,5
<i>Pro memoria:</i>	<i>Pro memoria:</i>			
<i>Aldundiak kudea.ko zehar.zergak</i>	<i>Imp.indirectos gestión propia</i>	<i>16,3</i>	<i>10,4</i>	<i>11,2</i>
<i>Doik.tza bidezko zehark.ko zergak</i>	<i>Imp.indirectos vía ajustes</i>	<i>9,7</i>	<i>14,8</i>	<i>13,6</i>

Zerga kontzeptu bakoitzak autonomia erkidegoaren bilketa osoan duen garrantzi erlatiboa aldatu egiten da epealdian zehar. 8.8., 8.9. eta 8.10. tauletan ikus daiteke hori. Taula horien bukaeran honako bereizketa egin da zeharkako zergen barruan: batetik, kudeaketa propioz bildutako zergak bereizi dira eta, bestetik, doikuntza bidez lortutako sarrerak, hau da, Estatuak zuzenean ingratszen dituenak (BEZ eta zerga bereziak).

Aztertutako epealdian agerian geratzen da zeharkako zergek pisua irabazi dutela zuzeneko zergen kaltetan. Zeharkako zergen barruan sarturik dauden zerga bereziak 1997tik aurrera hasi zirelako biltzen gertatu da batik bat hori. Kudeaketa propioaren eta doikuntzen arteko banaketa aztertuz gero, ikusten da doikuntzen bidea %12 inguruan mantendu dela eta, aldiz, kudeaketa propioz bildutakoa garrantzia hartuz joan dela (1997an %38,3 izatetik %40,2 izatera pasa da 2000. urtean). Zuzeneko zergek pisu erlatiboa galdu dute; izan ere, 1997. urtea baino lehen zergabilketaren erdia baino gehiago hartzen baldin bazuten, portzentaje hori behera joan da apurka-apurka eta 2000. urteko bilketa osoaren %45,9 baino ez dira.

Aztertutako epealdian izandako bilakaerak zergabilketaren igoera handi bat erakusten du 1998an, hurrengo bi ekitaldietan moteltzen dena. Urte horretan elektrizitatearen gaineko zerga hasi zen biltzen; zerga hori kontuan hartzen ez bada (1997. urtearekiko konparazioa homogenoagoa izate aldera beti) tasa %14,5etik %13,9ra jaisten da, eta hala ere epealdiko handiena segitzen du izaten. Hiru urte hauetan hazkunde tasarik handienak zeharkako zergetan ageri dira, eta gehikuntzak zerga mota honetan bakarrik dira bilketa osoarenak baino handiagoak. Zerga berria alde batera utziz gero, 1998. urteko egoera aldatu egiten da, %14,7 igo beharrean %13,5 gehitzen baitira zeharkako zergak (kopuru osoa baino lau ehunen portzentual gutxiago). Zuzeneko zergei dagokienez, esan behar da 1998an nabarmen igo ondoren (%14,4), hurrengo urtean %5,8raino jaisten direla, eta 2000. urtean %7,1eko igoera dute. Batera harturik, 2000n hazkunde tasak zerga kontzeptu guztietan hobetu dira 1999. urtearen aldean, 1998ko igoeretara iristen ez badira ere.

8.2.2. ERAKUNDEARTEKO KONPROMISOAK

Erakundearteko konpromisoek gastu masa handi bat eratzen dute, eta bere zenbatekoa finkatzeko, aurrekontuaren gainetik dagoen lege edo foru arau bat ezartzen da. Konpromiso horiek dira Estatuarentzako Kupoa, Eusko Jaurilaritzari egin beharreko Ekarpinak eta Udal Finantzaketarako Foru Fondoak.

Kupoa Autonomia Erkidegoak bere gain hartu ez dituen Estatuaren karga guztientzako kontribuzioa da, eta Ekonomi Itunean dator jasota. Itun horrek kalkulu

A lo largo del periodo, la importancia relativa de cada concepto tributario sobre el total recaudado en la comunidad autónoma varía según se recoge en los cuadros 8.8., 8.9. y 8.10.. Al final de estos cuadros se diferencia dentro de los impuestos indirectos entre los recaudados por gestión propia y los ingresos vía ajustes a la recaudación que son ingresados directamente por el Estado correspondiendo al IVA y a los impuestos especiales.

En el periodo se aprecia un aumento del peso de la imposición indirecta en detrimento de los impuestos directos, sobre todo debido a que a partir de 1997 se inicia la recaudación de los tributos especiales incluidos en los impuestos indirectos. Dentro de ellos, analizando la distribución entre gestión propia y vía ajustes, se aprecia que mientras la segunda vía se mantiene en torno al 12%, la recaudación por gestión propia ha ido cobrando importancia y de suponer el 38,3% en 1997 ha aumentado hasta el 40,2% en 2000. Los impuestos directos son los que pierden su peso relativo ya que antes de 1997 concentraban más de la mitad de la recaudación, y posteriormente han ido descendiendo dicho porcentaje hasta representar el 45,9% del total de la recaudación del año 2000.

La evolución de la recaudación en el periodo recogido muestra un importante crecimiento en 1998 que se suaviza en los dos ejercicios siguientes. En dicho año se inicia la recaudación del impuesto sobre la electricidad, que si se detrae para hacer una comparación más homogénea con respecto a 1997 la tasa desciende del 14,5% a un 13,9%; aún así se mantiene como la más elevada del periodo. En estos tres años son los impuestos indirectos los que presentan las tasas de crecimiento más elevadas, siendo además el único tipo de impuesto con incrementos superiores al total de la recaudación. Esta situación cambia para 1998 en caso de detraerle el nuevo impuesto ya que en lugar del 14,7% crecen un 13,5% (cuatro centésimas porcentuales inferior al total). Por su parte, los impuestos directos, tras un fuerte incremento en 1998 (14,4%), descienden hasta el 5,8% al año siguiente y en 2000 aumentan un 7,1%. En conjunto, en el último ejercicio han mejorado las tasas de crecimiento de todos los conceptos tributarios recogidos con respecto a 1999, pero sin llegar a alcanzar los incrementos de 1998.

8.2.2. COMPROMISOS INSTITUCIONALES

Los Compromisos Institucionales son una importante masa de gasto cuya cuantía está predefinida por Ley o Norma Foral anterior al presupuesto, se trata de: el Cupo al Estado, las Aportaciones al Gobierno Vasco y el Fondo Foral de Financiación Municipal.

El Cupo representa la contribución a todas las cargas del Estado que no asume la Comunidad Autónoma, y viene recogido en el Concierto Económico

metodologia ezartzen du, bai eta bost urtetarako lege bat ezarri beharra ere. Lege horretan epealdirako kupoa finkatzeko metodologia zehazteaz gainera, bosturtekoaren lehen urtean aplikatuko den kupoa ere onartu behar da. 1997-2000 epealdian abuztuaren 4ko 37/1997 Legea dago indarrean, 1997-2001 bosturtekoa hartzen duena.

Eusko Jaurlaritzarentzako Ekarpinak erabiltzen dira Ekonomi Itunaren kudeaketatik eratortzen diren sarrerak Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren eta foru ogasunen artean banatzeko, beti ere beren titularitzapean dauden eskumen edota zerbitzuen arabera. Baliabideak banatzeko metodologia eta lurralde historiko bakoitzaren ekarpinak Herri Finantzen Euskal Kontseiluak erabaki behar ditu eta Eusko Legebiltzarrean lege moduan aurkeztu. Gaurregun, urriaren 31ko 6/1996 Legea dago indarrean, eta 1997-2001 ekitaldiei aplikatzen zaie.

Azkenik, Udal Finantzaketarako Foru Fondoak lurralde historikoko udalek zerga itunduen kudeaketatik eratorritako emaitzan duten partaidetza adierazten du. Hasiera batean partaidetza hori Gipuzkoako Aurrekontu Orokorretan ezartzen zen urte bakoitzerako, eta horrela izan da harik eta azaroaren 23ko 15/1994 Foru Araua, Udal Finantzaketarako Foru Fondoarena, onartu zen arte. Arau horrek indarrean darrai oraindik, nahiz eta bi aldaketa izan dituen Kupoa eta Ekarpinak aldatzearen ondorioz. Gipuzkoako 1997. eta 1998. urteetako aurrekontu orokorrak onartzen dituzten 13/1996 eta 7/1997 foru arauetan jasota daude hurrenez hurren.

8.2.2.1. KUPOA

EAE mailan, behin betiko kupoa, 8.11. taulan jasotzen dena, epealdiko urte guztietan aldatzen da. Erabilitako eguneratze oinarria dagokion kupu legea indarrean dagoen bosturtekorako berdina izan arren gertatzen da hori, lege horrek oinarriaren osagaiak eta egin beharreko kalkuluak finkatzen dituelako. Oinarri urtearen behin-behineko kupoa eta ertzaintza finantzatzeko kopurua legez finkatzen dira, eta bi elementu horiek batuz behin-behineko eguneratze oinarria lortzen da. Oinarri horri oinarri urtearen behin betiko eguneratze indizea aplikatuz ateratzen den emaitzari INSALUD eta IMSERSOri dagokien finantzaketa gehigarria kentzen zaio. Eragiketa horrek bosturtekoaren eguneratze oinarria ematen du.

Urte bakoitzerako, bosturtekoaren eguneratze oinarriari EAEren esku geratu diren eskumen berriak kendu behar zaizkio, beti ere oinarri urtearen arabera baloratuak, hau da, eskumen horiek urte horretan zuten zenbatekoaren arabera. Emaitza urte bakoitzeko eguneratze oinarri berrikusia da. Haren gainean dagokion eguneratze indizea aplikatzen bazaio, bosturteko lege bakoitzaren 12.1 artikuluari jarraiki, eguneratutako kupoa lortzen da. Azkenik, behin betiko

en el que se establece una metodología de cálculo así como la necesidad de una ley quinquenal que determine la metodología de señalamiento del cupo que ha de regir en el periodo y que apruebe el cupo del primer año del quinquenio. Dentro del periodo analizado 1997-2000 está en vigor la Ley 37/1997, de 4 de agosto, que abarca el quinquenio 1997-2001.

Las Aportaciones al Gobierno Vasco son el medio para distribuir entre la Hacienda General del País Vasco y las Haciendas Forales los ingresos derivados de la gestión del Concierto Económico, en función de las competencias y/o servicios de los que sean titulares. La metodología de distribución de los recursos y la determinación de las aportaciones de cada Territorio Histórico debe aprobarse por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas y elevarse al Parlamento Vasco en forma de ley. Actualmente la normativa vigente es la Ley 6/1996, de 31 de octubre, aplicable a los ejercicios 1997/2001.

Por último, el Fondo Foral de Financiación Municipal representa la participación de los municipios del Territorio Histórico en el resultado de la gestión de los tributos concertados. Inicialmente se establecía dicha participación en los Presupuestos Generales de Gipuzkoa para cada año hasta que se aprobó la Norma Foral 15/1994, de 23 de noviembre, reguladora del Fondo Foral de Financiación Municipal, normativa que sigue vigente y que ha sufrido dos modificaciones a raíz de la modificación del Cupo y las Aportaciones, recogidas en la N.F.13/1996 y la N.F.7/1997, de Presupuestos Generales de Gipuzkoa para 1997 y 1998 respectivamente.

8.2.2.1. CUPO

El Cupo definitivo, a nivel de la CAPV, recogido en el cuadro 8.11. muestra una cuantía variable para cada año del periodo, aunque la base de actualización es la misma para el quinquenio en el que está vigente la ley de cupo correspondiente, ya que en dicha norma se fijan los componentes que la forman y los cálculos a realizar. Por ley se fija el cupo provisional del año base y la cantidad destinada a financiar la policía autónoma, obteniendo con la suma de ambos elementos la base de actualización provisional. A dicha base se le aplica el índice de actualización definitivo del año base y al resultado se resta la financiación adicional correspondiente al INSALUD e IMSERSO. El resultado de esta operación es la base de actualización del quinquenio.

Para cada año, a la base de actualización del quinquenio se le restan las nuevas competencias que asuma la CAPV, valoradas siempre con respecto al año base, es decir, por el importe que dichas competencias tenían en dicho año. El resultado nos da la base de actualización revisada para cada año, y sobre ella se aplica el índice de actualización correspondiente según el artículo 12.1 de la ley quinquenal, y se obtiene el cupo actualizado. A este resultado se le resta la cuantía

kupoa lortzeko, emaitza horri honako zenbatekoa kendu behar zaizkio: ertzaintzari dagokion zenbatekoa, INSALUD eta IMSERSOren finantzaketa eta, 1997tik, bosturtekorako indarrean dagoen legearen lehen xedapen gehigarrian oinarrituaz, zerga bereziak lagatzetik datozen konpentsazio finantzarioak. Azken eragiketa horren emaitza behin betiko kupoa da.

Epealdian zehar 1997an onartutako legea egon da indarrean, azken bost urteetarako aplikagarri dena, eta horren ondorioz eguneratze oinarriak ez du lau ekitaldietan aldaketarik izan. Bestalde, bereganatutako eskumen berriak 1998an asko hazi ondoren, hurrengo ekitaldietan milioi bat eta bi milioi pezetako gehikuntza soila izan dute hurrenez hurren. Hori dela-eta, eguneratutako kupoaren igoera handia, 1997 eta 2000 urte bitartean 49.224 milioi pezetakoa izan dena, ekitaldi bakoitzean aplikatutako eguneratze indizeari zor zaio. Behin betiko kupoari dagokionez, ordea, diferentzia hori 28.383 milioi pezetaraino jaisten da. 1998an beherakada txiki bat izan ondoren, igoera nabarmenak ditu hala 1999an nola 2000n; azken urte honetan 148.004 milioi pezetakoa da behin betiko kupoa.

Urtero kalkulatzen den kupoaren eguneratze indizea kupoa kalkulatzeko ez ezik, Ertzaintzaren eta INSALUD eta IMSERSOren finantzaketa kalkulatzeko ere erabiltzen da. 8.12 taulan ageri denez, kupotik datozen kargen baturak kopuru handia adierazten dute EAErekin itundutako baliabideekiko. Zehazki esateko, karga horiek zerga itunduengatik epealdian bildu den guztiaren herena baino gehiago dira, eta ia hiru puntu

correspondiente a la policía autónoma, a la financiación del INSALUD e IMSERSO, y desde 1997, en base a la disposición adicional primera de la ley vigente para el quinquenio, a las compensaciones financieras derivadas de la cesión de los impuestos especiales. El resultado de esta última operación es el cupo definitivo.

A lo largo del periodo está vigente la última ley quinquenal de 1997 por lo que la base de actualización se mantiene constante en los cuatro ejercicios. Así mismo, las nuevas competencias, tras aumentar en 1998 se incrementan en uno y dos millones respectivamente en los ejercicios siguientes. Por ello, el fuerte aumento del cupo actualizado se debe al índice de actualización aplicado en cada ejercicio, y que ha hecho que entre 1997 y 2000 haya aumentado en 49.224 millones de pesetas. Esta diferencia se ve disminuida hasta 28.383 millones si se calcula con respecto al cupo definitivo. Éste desciende ligeramente en 1998 para posteriormente presentar fuertes aumentos tanto en 1999 como en 2000, año en que asciende a 148.004 millones de pesetas.

El índice de actualización del cupo calculado anualmente, además de para el cálculo del cupo, se aplica en la determinación de la financiación de la Ertzaintza y la destinada al INSALUD e IMSERSO. La suma de estas cargas derivadas del cupo, según recoge el cuadro 8.12., suponen una cuantía importante con respecto a los recursos concertados con la CAPV. Concretamente dichas cargas representan a lo largo del

CUADRO 8.11. TAULA
1997-2000 epealdiko kupoa
Cupo del periodo 1997-2000

KONTZEPTUA	CONCEPTO	1997	1998	1999	2000
1. Oinarri urtearen behin-behineko kupoa	Cupo Provisional Año base	114.297			
2. Ertzaintzara bideratutakoaren behin-behineko balor.	Valoración prov. Ertzaintza	57.279			
3. Behin-behineko eguneratze oinarria (3=1+2)	Base de Actualización provisional (3=1+2)	171.576			
4. Behin betiko eguneratze indizea 12.2 art.	Índice Actualización definitiva Art.12.2	1,0303791			
5. Eguneratze indizea (5=3*4)	Base de Actualización (5=3*4)	176.788			
6. INSALUD eta IMSERSOren finantzaketa	Financiación adicional Insalud e Imserso	-4.202			
7. Eguneratze oinarria (7=5-6)	Base de actualización (7=5-6)	180.990	180.990	180.990	180.990
8. Eskumen berriak	Nuevas competencias	60	577	578	580
9. Eguneratze oinarri berrikusia (9=7-8)	Base de actualización revisada (9=7-8)	180.930	180.414	180.412	180.410
10. Eguneratze indizea. 12.1. art.	Índice de Actualización Art.12.1		1,0725537	1,1775642	1,2757278
11. Eguneratutako kupoa (11=9*10)	Cupo actualizado (11=9*10)	180.930	193.503	212.447	230.154
12. Ertzaintza	Ertzaintza	57.452	56.138	62.879	62.061
13. INSALUD eta IMSERSOren finantzaketa gehigarria	Financ Adicional INSALUD e IMSERSO	-17	12.035	10.375	13.028
14. Zerga berezien konpentsazio finantz. 1. xed. geh.a	Compensación financiera II EE DA 1ª	3.875	5.780	5.854	7.061
15. Behin betiko kupoa (15=11-12-13-14)	Cupo definitivo (15=11-12-13-14)	119.621	119.551	133.340	148.004

Zenbatekoa milioi pezetakotan / Importe en millones de pesetas

portzentualeko tartea ageri dute urteen artean: 1998ko %37,9tik 1997ko %40,7ra hain zuzen.

Eguneratze indizea Estatuak erregimen komuneko autonomia erkidegoen esku utzi ez dituen zergen bilketa kontuan hartuz kalkulatzen da, hau da, alde bakarreko kalkulua da, Estatuko sarreretan bakarrik oinarritzen dena eta EAEren bilketak duen portaerarekin zerikusirik ez duena. Kalkulu horrek arrisku bat sortzen du autonomia erkidegoarentzat; izan ere, lurralde horretako baliabideen bilakaera Estatuan baino txikiagoa bada, Kupoaren proportzioa baliabide horiena baino handiagoa izango da eta, korrelatiboki, baliabide gehiago sortzeak kupoaren proportzioa txikiagoa izatea ekarriko du. Lagatzen ez diren Estatuko zerga itunduek eta EAEko zerga itundu guztiak epealdian izan dituzten bariazio tasei begiratuz gero, agerian geratzen da Kupoaren proportzioa bi ekitalditan gehitu dela (1997an eta 1999an), eta beste bietan jaitsi egin dela.

Bestalde, kupoaren tratamendua dela-eta, urte bateko likidazioa hurrengo urtean egiten da, eta horren ondorioz, diferentzia bat agertzen da behin betiko kupoaren eta ekitaldian benetan ordaindutakoaren artean. 8.13. taulan erakusten denez, aurreko ekitaldiko kupoaren likidazioa eta urte horretarako kalkulatzen den behin-behineko kupoa urte berean ordaintzen dira.

Aurreko bosturtekoaren ekitaldietako likidazioa jasotzen den urtea alde batera utzita, epealdiaren gainerakoan urte bateko behin betiko kupoa likidatzen ekitaldi barruan ordaindu den behin-behineko kupoa eta hurrengo ekitaldian egindako likidazioa batuz lortzen da. Dena den, kupoa ekitaldi desberdinetan ordaintzen denez, fluxu finantzarioak sortzen dira

periodo más de un tercio del total recaudado por tributos concertados, con una amplitud de intervalo de casi tres puntos porcentuales que va desde el 37,9% de 1998 al 40,7% de 1997.

Este índice de actualización se calcula en base a la recaudación por parte del Estado de los tributos no cedibles a las Comunidades Autónomas de Régimen Común; es decir, es un cálculo unilateral determinado únicamente por las cifras de ingresos del Estado y es independiente del comportamiento de la recaudación de la CAPV. Este cálculo genera un riesgo para la comunidad autónoma de tal modo que si la evolución de los recursos en este ámbito es más reducida que en el Estado la proporción que representa el Cupo sobre esos recursos será mayor y, correlativamente, una mayor generación de recursos supondrá que el cupo represente una proporción inferior. La diferencia observada de las tasas de variación de los Tributos Concertados no cedibles del Estado y del conjunto de los Tributos Concertados de la CAPV a lo largo del periodo muestra que la proporción del Cupo ha crecido en dos ejercicios (1997 y 1999) mientras que ha descendido en los otros dos restantes.

Por otro lado, el tratamiento del cupo hace que la liquidación de un año se realice al año siguiente por lo que hay una diferencia entre el cupo definitivo y el realmente pagado en el ejercicio. En un mismo año, según muestra el cuadro 8.13., se abona la liquidación del cupo del ejercicio anterior y el cupo provisional calculado para ese año.

Salvo en el año en que se recoge la liquidación de los ejercicios del quinquenio anterior, en el resto del periodo el cupo líquido definitivo de un año es la suma del provisional pagado en el ejercicio más la liquidación realizada en el ejercicio siguiente. Pero al ser abonado en ejercicios diferentes se crea unos flujos financieros entre el Estado y la CAPV que, dependiendo del signo, supone

CUADRO 8.12. TAULA
Kupotik datozen kargak eta EAEren baliabideak
Cargas derivadas del Cupo y recursos de la CAPV

KONTZEPTUA	CONCEPTO	1997	1998	1999	2000
1. Kupoa	Cupo	119.621	119.551	133.340	148.004
2. Ertzaintza	Ertzaintza	57.452	56.138	62.879	62.061
3. Insalud eta Imersoren finantzaketa	Financiación Insalud+Imerso	223.292	251.527	273.316	298.004
4. KARGAK GUZTIRA (4=1+2+3)	TOTAL CARGAS (4=1+2+3)	400.364	427.216	469.534	508.070
5. Zerga itunduen bilketa guztira	Recaudación total tributos concertados	983.805	1.126.433	1.222.363	1.337.897
6. Kargak guztira / Zerga itunduak (4/5 %-tan)	Total cargas / Trib.concert. (4/5 en %)	40,7	37,9	38,4	38,0
7. Kupoaren eguneratze indizea	Indice actualización Cupo	1	1,0725537	1,1775642	1,2757278
8. Kupoaren indizearen bilakaera %-tan	% Evolución índice Cupo	12,3	7,3	9,8	8,3
9. Bilketaren indizearen bilakaera %-tan	% Evolución índice Recaud.	5,7 (*)	14,5	8,5	9,5
10. Diferentzia %. Bilak. (10=9-8)	Diferencia %evol. (10=9-8)	-6,6	7,2	-1,3	1,1

Zenbatekoa milioi pezetakotan / Importe en millones de pesetas

(*) Zerga berezien bilketa kontuan hartu gabe. / Sin tener en cuenta la recaudación de los impuestos especiales.

CUADRO 8.13. TAULA
Ordaindutako kupoaren eta behin betiko kupoaren arteko aldea
Diferencia entre Cupo pagado y Cupo definitivo

KONTZEPTUA	CONCEPTO	1997	1998	1999	2000
1. Aurreko ekitaldiko kupoaren likidazioa	1. Liq.cupo ejercicio anterior	4.578	10.198	4.511	20.295
2. Ekit.an ordaind.ko behin-behineko kupoa	2. Cupo provis.pagado en el ejercicio	109.423	115.040	113.045	137.110
3. Ekitaldian ordaindua, guztira (3=1+2)	3. Total pagado en el ejercicio (3=1+2)	114.001	125.238	117.556	157.405
4. Ekitaldiko behin betiko kupoa	4. Cupo definitivo del ejercicio	119.621	119.551	133.340	148.004
5. ALDEA (5=3-4)	5. DIFERENCIA (5=3-4)	-5.620	5.687	-15.784	9.401

Zenbatekoa milioi pezetakotan / Importe en millones de pesetas

Estatuaren eta EAren artean, eta nolako zeinua duten, banatu beharreko baliabideak gehiago edo gutxiago izan daitezke. Aldea positiboa izateak esan nahi du autonomia erkidegoak urte horretako behin betiko kupoa baino gehiago ordaindu duela ekitaldian. Aldiz, zeinua negatiboa izanez gero, Estatuak kobratzen duena kupoagatik jaso beharko lukeena baino txikiagoa da eta, beraz, autonomia erkidegoan banatu beharreko baliabideak gehitu egiten dira. Hau da, zerga itunduen bilketatik abiatutik, baliabide erabilgarrien bariazioa hauxe izango da: bilketa hazkundera gehi kupoaren diferentzia negatiboa edo bilketa hazkundera ken kupoaren diferentzia positiboa.

Hortaz, EAren urte bateko baliabideek aurreko urtearekiko duten bariazioan ondoko faktore hauek dute eragina: kupoak erabiltzen duen eguneratze indizearen eta bilketaren benetako hazkunderaren arteko diferentziak eta, aldi berean, Estatuaren eta EAren arteko fluxuak, hurrengo ekitaldiko kupoaren likidaziotik datorrenak.

8.2.2.2. EUSKO JAURLARITZAREN ALDEKO EKARPENAK

Eusko Jaurlaritzaren aldeko ekarpenak kalkulatzeko (ikus 8.14 taula) zerga itunduen urteko bilketatik abiatu behar dugu, behar diren interesak gehitu eta, azkenik, urtean bildutako sarreraren %6,3 kendu BEZk ordeztutako sarreraren kontzeptupean, zerga bereziak kontuan hartu gabe. Horren emaitza ekitaldiko baliabideak dira. Kopuru horri kenkari jakin batzuk egiten bazaizkio, ekitaldian banatu beharreko baliabideak lortzen dira.

Egin daitezkeen kenkariak bi motatakoak dira: kupoaren metodologiatik datozenak eta gainerako kenkariak. Lehenengoak ekitaldiko kupoa kalkulatzeko erabilitako zenbatekoak dira, hau da, batetik, ekitaldian ordaindutako kupoa (hala behin-behinekoa nola aurreko ekitaldiko kupoaren likidazioa), bestetik, ertzaintzari dagokion zenbatekoa eta, azkenik, INSALUD eta IMSERSO finantzatzeko bideratutakoa. Gainerako kenkariak ekarpen legeetan jasota daude eta hauek dira:

una mayor o menor disponibilidad de recursos a distribuir. En caso de que la diferencia sea positiva, significa que la comunidad autónoma ha pagado en el ejercicio mayor cuantía de la que supone el cupo definitivo correspondiente a ese año. En caso de que el signo sea negativo, el Estado cobra menos de lo que tendría que percibir en concepto de cupo, aumentando los recursos a distribuir en la comunidad autónoma. Es decir, partiendo de la recaudación de los tributos concertados, la variación de los recursos disponibles será igual al incremento de la recaudación más la diferencia negativa del cupo ó menos la diferencia positiva del cupo.

Por lo tanto, la variación de los recursos de la CAPV de un año en relación al año anterior se ve afectada por la diferencia entre el índice de actualización utilizado por el cupo y el incremento real de la recaudación, y al mismo tiempo en función del flujo entre el Estado y la CAPV derivado de la liquidación del cupo en el ejercicio siguiente.

8.2.2.2. LAS APORTACIONES AL GOBIERNO VASCO

Para el cálculo de las Aportaciones al Gobierno Vasco, recogido en el cuadro 8.14., se parte de la recaudación de tributos concertados realizada en el año, se le añaden los intereses correspondientes y se detrae en concepto de ingresos sustituidos por el IVA el 6,3% de los tributos recaudados en el año sin tener en cuenta los impuestos especiales. El resultado es el total de los recursos del ejercicio. A este total se le restan unas deducciones determinadas para obtener el total de recursos a distribuir en el ejercicio.

Las deducciones aplicables se pueden clasificar en dos grupos: las provenientes de la metodología del cupo y el resto. Las primeras son las cuantías empleadas para el cálculo del cupo del ejercicio, concretamente el cupo pagado en el ejercicio (tanto el provisional como la liquidación del ejercicio anterior), la cuantía correspondiente a la policía autónoma, y la destinada a la financiación del INSALUD y del IMSERSO. El resto de deducciones están recogidas en las diferentes leyes de

CUADRO 8.14. TAULA
Ekapenak. Banatu beharreko baliabideak
Aportaciones. Recursos a distribuir

KONTZEPTUA	CONCEPTO	1997	1998	1999	2000
1. Zerga itunduak	Tributos concertados	983.805	1.126.433	1.222.363	1.337.897
2. Interesak	Intereses	121	130	95	150
3. BEZk ordeztutako sarrerak	Ingresos sust. I.V.A.	-53.962	-61.187	-66.673	-71.971
4. BALIABIDEAK, GUZTIRA (4=1+2+3)	TOTAL RECURSOS (4=1+2+3)	929.964	1.065.376	1.155.784	1.266.077
Kupotik datozen kenkariak:					
5. Ekitaldiko kupo likidoa	Cupo líquido ejerc.	109.423	115.040	113.045	137.110
6. Aur.ko ekit.ko kupoaren likidaz.	Liquidación Cupo ej.anter.	4.578	10.198	4.511	20.295
7. Ertzaintza eta Miñoiak. Ekitaldia	Ertzantza y Miñones ejerc.	57.279	57.913	62.960	61.818
8. Ertzaintza. Aur.ko ekit.ko likidaz.	Liquidación Ertzantza ej. Anter.	-333	172	-1.775	-81
9. INSALUD. Ekit.ko finantzazioa	Financiación INSALUD ejer.	204.915	229.201	252.846	265.952
10. IMSERSO. Ekit.ko finantzazioa	Financiación IMSERSO ejerc.	17.309	18.117	18.644	30.542
11. INSALUD.Aur.ko ekitaldietako finantz.	Liquidación INSALUD ejersc. anter.	-384	993	3.995	2.227
12. IMSERSO. Aur.ko ekitaldietako finantz.	Liquidación IMSERSO ejersc. anter.	-929	75	233	-381
13. Guztira (13=5+6+7+8+9+10+11+12)	Total (13=5+6+7+8+9+10+11+12)	391.859	431.709	454.458	517.481
Gainerako kenkariak:					
14. 22.3 art.ko politiken finantzazioa	Financiación Política art 22.3				729
15. 3R planaren finantzazioa	Financiación 3R	240	-365	-172	
16. Inbertsio estrategikoen fondoa	Fondo Inversión Estratégicas	6.390	6.390	6.390	2.000
17. Eskumen berrien finantzazioa	Financ. nuevas competencias		2	3	7
18. Eskumen berrien finantz. 1997	Financ. nuevas competencias 1997	59	607	656	747
19. Guztira (19=14+15+16+17+18)	Total (19=14+15+16+17+18)	6.689	6.634	6.877	3.482
20. KENKARIAK GUZTIRA (20=13+19)	TOTAL DEDUCCIONES (20=13+19)	398.548	438.343	461.335	520.963
21. BANATU BEHARREKO BALIABIDEAK (4-20)	RECURSOS A DISTRIBUIR (4-20)	531.415	627.033	694.449	745.114
Banatu beharreko baliabideen bilakaera %	%Evolución Recursos a distribuir	4,4%	18,0%	10,8%	7,3%
Banatu beharreko bilketa / zerga itunduak (21/1)	Rec.a distribuir / tributos concertados (21/1)	54,0%	55,7%	56,8%	55,7%

Zenbatekoa milioi pezetaketan / Importe en millones de pesetas

lurralde historikoen legeak 22.3 artikuluan aipatzen dituen politiken finantzazioa, 3R planaren finantzazioa, inbertsio estrategikoen fondoa eta epealdian bereganatu diren eskumen berriak finantzatzeko erabilitakoak.

Baliabide guztiekin erlazionatzen baditugu, kenkari horien zenbatekoa handia da oso (baliabide guztien %40 eta %42,9 bitartean dago portzentajea). Kupotik datozenak nagusitzen dira, kenkari guztien %98 baino gehiago hartzen baitute. Hori dela eta, kupoaren portaerak berebiziko garrantzia du banatu beharreko baliabideen kalkuluan.

Banatu beharreko baliabideak epealdiko urte guztietan igo dira. Horrela, 1997an 531.415 milioi pezetakoak izatetik 745.114 milioi pezetakoak izatera pasa dira 2000n. Gehikuntzarik handiena 1998an dugu, %18 egin baitute gora. Aldiz, 1999ko hazkunde tasa %10,8raino jaitsi da. Azken ekitaldian baliabideak %9,5 gehitu dira, baina kupotik datozen kenkariak %13,9ko igoera izan dutenez, banatu beharreko baliabideen igoerak bi puntu portzentual galdu ditu eta %7,3an geratu da azkenean. Tasa horrek 1997an lortutakoa bakarrik gainditzen du.

aportaciones y son: la financiación de las políticas del artículo 22.3 de la LTH, financiación del plan 3R, el fondo de inversión estratégica y las destinadas a la financiación de nuevas competencias asumidas en el periodo.

Dichas deducciones suponen una cuantía importante en relación al total de recursos (entre el 40% y el 42,9% del total de los recursos). Las más significativas son las provenientes del cupo, ya que representan más del 98% del total de deducciones. Por ello, el comportamiento del cupo tiene una gran importancia en el cálculo de los recursos a distribuir.

A lo largo del periodo los recursos a distribuir aumentan todos los ejercicios pasando de 531.415 millones de pesetas en 1997 a 745.114 millones en 2000, siendo 1998 el año con mayor aumento porcentual al incrementar en un 18%. En 1999 se reduce la tasa de crecimiento hasta el 10,8%. En el último ejercicio, aunque los recursos se han incrementado un 9,5%, como las deducciones provenientes del cupo han crecido un 13,9%, el aumento de los recursos a distribuir ha perdido dos puntos porcentuales hasta el 7,3%, tasa que sólo supera a la alcanzada en 1997.

CUADRO 8.15. TAULA
Ekarpenak, guztira
Total Aportaciones

KONTZEPTUA	CONCEPTO	1997	1998	1999	2000
1. Banatu beharreko baliabideak	Recursos a distribuir	531.415	627.033	694.449	745.114
2. Koefiziente bertikala	Coeficiente vertical	66,25%	66,25%	66,25%	66,25%
3. Ekarpen orokorrak (3=1*2)	Aportaciones Generales (3=1*2)	352.063	415.410	460.072	493.638
4. Part.a Zor Publiko Bereziaren etekinetan	Part. Rendtos.Deuda Pública Especial	1.000			
5. FEGA	FEGA			-225	-241
6. INSALUD eta IMSERSOren finantzazioa	Financiación INSALUD e IMSERSO	204.350	230.583	257.870	268.851
7. Ertzaintza eta Miñoiak	Ertzaintza y Miñones	56.947	58.085	61.184	61.737
8. 22.3 art.ko politiken finantzaz.	Financiación Políticas art 22.3				729
9. 3R planaren finantzazioa	Financiación 3R	240	-365	-172	
10. Inbertsio estrategikoen fondoa	Fondo Inversión Estratégicas	6.390	6.390	6.390	2.000
11. Eskumen berrien finantzazioa	Financ. nuevas competencias		2	3	7
12. Elkartasun fondoa	Fondo de solidaridad	1.794	2.116	2.127	576
13. EKARPENAK GUZTIRA (13=3+4+...+12)	TOTAL APORTACIONES (13=3+4+...+12)	622.783	712.221	787.250	827.297

Zenbatekoa milioi pezetakotan / Importe en millones de pesetas

Banatu beharreko baliabideak ekitaldi bakoitzean bildutako zerga itunduekin erlazionatzen baditugu, agerian jartzen da epealdi honetan 1997ko portzentajea (%54) gainditzen dela, %55,7koa 1998an eta 2000n, eta %56,8koa 1999an, epealdiko handiena.

Hiru foru aldundiek Eusko Jaurlaritzari ordaindu behar dizkieten ekarpen orokorren zenbateko osoa aurreko datuetatik abiatu kalkulatu da (ikus 8.15. taula). Ekarpen orokor kontzeptupean, ekitaldian banatu beharreko baliabide guztien portzentaje bat ordaintzen da. Portzentaje hori ekarpen lege bakoitzak finkatzen du eta koefiziente bertikala du izena. Aztergai dugun epealdian ez du aldaketarik izan: %66,25eko koefizientea dago indarrean 1997-2001 bosturtekorako. Ordaindu beharreko beste zenbatekoak hauek dira: gainerako kenkarietan jasotakoak eta kupoaren metodologiatik datozen kenkarien zati bat (hau da, ertzaintzari dagokion guztia eta INSALUD eta IMSERSO finantzatzeko bideratutakoaren zati bat). Gainera, 1997. urtean kopuru jakin bat ordaindu da zor publiko bereziaren etekinetan partaidetza izateagatik, eta 1999. eta 2000. urteetan ekarpen orokorra murriztu egin da Nekazaritzaren Bermerako Europako Fondoa aldundien eskumen izatera pasa delako.

8.2.2.3. KOEFIZIENTE HORIZONTALA

Ekarpen legeek koefiziente horizontala kalkulatzeko metodologia ere ezartzen dute. Koefiziente hori kupoari eta ekarpeni dagozkien kargak hiru foru aldundien artean banatzeko erabiltzen den portzentajea da. Beraz, autonomia erkidegoari dagozkion kalkuluak behin lortu ondoren, lurralde

Si se relacionan los recursos a distribuir con los tributos concertados recaudados en cada ejercicio se aprecia que a lo largo del periodo esta relación es superior al 54% correspondiente a 1997, ya que tanto en 1998 como en 2000 es el 55,7%, y en 1999 alcanza el máximo con el 56,8%.

El total de las aportaciones generales que han de pagar entre las tres diputaciones forales al Gobierno Vasco, recogido en el cuadro 8.15., se calcula a partir de los datos anteriores. En concepto de aportación general, se abona un porcentaje del total de los recursos a distribuir en el ejercicio. Dicha parte viene marcada en cada ley de aportaciones y se corresponde al coeficiente vertical, que no ha variado en el periodo recogido: el 66,25% vigente para el quinquenio 1997-2001. El resto de los importes a abonar son las cuantías recogidas en el resto de deducciones así como una parte de las deducciones provenientes de la metodología del cupo (el total del importe de la policía autónoma y parte del importe destinado a la financiación del INSALUD e IMSERSO). Además en 1997 se abona un importe específico por la participación en los rendimientos de la deuda pública especial, y en 1999 y 2000 hay una minoración de la aportación general debido a que el Fondo Europeo de Garantía Agrícola pasa a ser competencia de las diputaciones.

8.2.2.3. COEFICIENTE HORIZONTAL

En las leyes de aportaciones también se recoge la metodología para el cálculo del coeficiente horizontal, que es el porcentaje utilizado para la repartición de las cargas correspondientes al Cupo y a las Aportaciones entre las tres diputaciones forales. Por lo tanto, una vez obtenidos los cálculos a nivel de la comunidad

bakoitzaren karga indibiduala zein den jakiteko, ekitaldi bakoitzean lurralde bakoitzari dagokion portzentajea aplikatzen da (8.16. taula erakusten da). Kontuan izan behar da kupoaren kasuan ekitaldian benetan ordaindu denari aplikatzen zaiola portzentajea (8.13. taulan kalkulatu). Ekarpentean, berriz, koefiziente horizontala 8.15. taulan ageri diren balioei aplikatzen zaie, hau da, lehen azaldu dugun koefiziente bertikala aplikatu ondoren.

Gipuzkoako koefiziente horizontala kupoaren eta ekarpenen zenbatekoari aplikatuz Foru Aldundi honek ordaindu duen guztia lortzen da (ikus 8.17. taula). Zerga itunduengatik bildutakoari karga horiek kentzen bazaizkio, Gipuzkoak erabilgarri dituen baliabideak lortzen dira.

autónoma, para determinar la carga individual de cada territorio histórico se le aplica el porcentaje, recogido en el cuadro 8.16., correspondiente a cada uno para cada ejercicio. Ha de tenerse en cuenta que en el caso del Cupo el porcentaje se aplica sobre el realmente pagado en el ejercicio, calculado en el cuadro 8.13., y en las Aportaciones dicho coeficiente horizontal se aplica sobre los valores recogidos en el cuadro 8.15., es decir, una vez aplicado el coeficiente vertical anteriormente explicado.

Al aplicar el coeficiente horizontal correspondiente a Gipuzkoa sobre las cuantías de Cupo y Aportaciones, recogido en el cuadro 8.17., se obtiene el total pagado por esta Diputación Foral. Si al total recaudado por tributos concertados se le resta estas cargas el resultado representa los recursos disponibles de Gipuzkoa.

CUADRO 8.16. TAULA
Ekarpen koefizienteak
Coeficientes de Aportación

KONTZEPTUA / CONCEPTO	1997	1998	1999	2000
Araba	15,31	15,67	15,64	15,96
Bizkaia	52,96	51,98	51,76	51,32
Gipuzkoa	31,73	32,35	32,60	32,72
EAE	100,00	100,00	100,00	100,00

CUADRO 8.17. TAULA
Kupoa eta ekarpenak direla eta Gipuzkoak egindako ordainketa eta baliabide erabilgarriak
Pago realizado en concepto de Cupo y Aportaciones y recursos disponibles de Gipuzkoa

KONTZEPTUA	CONCEPTO	1997	1998	1999	2000
1. Ekitaldian ordaindutako kupoa	1. Cupo pagado en el ejercicio	36.173	40.514	38.323	51.503
2. Ekarpinak	2. Aportaciones	197.609	230.403	256.643	268.984
3. ORDAINDUA, GUZTIRA (3=1+2)	3. TOTAL PAGADO (3=1+2)	233.782	270.918	294.967	320.487
4. Zerga itunduen bilketa	4. Recaudación Tributos concertados	320.719	369.092	402.497	432.002
5. Zerga itunduen bilketaren bilakaera	5. Evolución recaud. Trib. Concertados	6,0%	15,1%	9,1%	7,3%
6. BALIABIDE ERABILGARRIAK (6=4-3)	6. RECURSOS DIPONIBLES (6=4-3)	86.937	98.175	107.530	111.515
7. Zerga itund.en gl % (6/4)	7. % s/Trib.concert. (6/4)	27,1%	26,6%	26,7%	25,8%
8. Baliab.erabilg.en bilakaeraren %	8. %Evolución de los Rec.dispon.	3,4%	12,9%	9,5%	3,7%

Zenbatekoa milioi pezetakotan / Importe en millones de pesetas

CUADRO 8.18. TAULA
Gipuzkoako bilketaren eta ekarpenaren arteko aldea
Diferencia entre la recaudación y la aportación de Gipuzkoa

KONTZEPTUA	CONCEPTO	1997	1998	1999	2000
1. Ekarpen indizea	1. Índice de aportación	31,73	32,35	32,60	32,72
2. Gipuzkoako bilketa EAerekiko	2. Recaud.Gipuzkoa s/EAE	32,60	32,77	32,93	32,29
3. ALDEA (3=2-1)	3. DIFERENCIA (3=2-1)	0,87	0,42	0,33	-0,43
Aldearen bariazioa	Variación de la diferencia	-0,34	-0,45	-0,09	-0,76

Baliabide erabilgarriak 1997an 86.937 milioi pezetakoak izatetik 111.515 milioioak izatera pasa dira 2000n. Kopuru horiek zerga itunduengatik bildutakoaren heren bat baino gutxiago dira.

Hemen ere errepikatu egiten da autonomia erkidegoak Estatuarekiko duen egoera, hau da, diferentziak agertzen dira Gipuzkoak kopuru osoarekiko bildutakoaren eta dagokion ekarpen indizearen artean. Diferentzia horiek ikusita uler daiteke zergatik aldatzen diren urte bateko baliabide erabilgarriak aurreko urtearen aldean. Diferentzia hori positiboa bada, baliabideak sortzen dira Gipuzkoaren alde, beste bi lurraldeekin konparatuta bildu duena karga orokorreari egiten dien ekarpena baino handiagoa izan delako. Aldiz, diferentzia hori negatiboa bada, baliabideak galtzen dira. 8.18. taulan ikus daitekeenez, Gipuzkoako zergabilketak EAEn bildutako zerga itundu guztiekiko hartzen duen portzentajea ekarpen indizea baino handiagoa izan da epealdiko lehen hiru urteetan; bakar-bakarrik 2000. urtean hartzen du zeinu negatiboa, eta horrek esan nahi du Aldundi honek egindako ekarpena bildutakoa baino handiagoa izan dela eta, beraz, azken ekitaldian baliabide gutxiago izan dituela.

8.2.2.4. UDAL FINANTZAKETARAKO FORU FONDOA

Lurralde bakoitzeko sarrerei kupoarengatik eta ekarpenengatik ordaindu beharreko zenbatekoa kentzen bazaie lurralde bakoitzeko baliabideak lortzen dira. Baliabide horiek udalerriak finantzatzeko eta foru aldundi bakoitzaren kudeaketa propioan erabiltzeko bideratu behar dira. Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren bitartez banatzen dira udalerrien artean, eta kalkulua lurralde bakoitzeko araudiaren arabera hazten da.

8.19. taulan ikusgai jarri da zein izan den Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren 1997-2000 epealdian. Erakusten diren zenbatekoak kupoari eta ekarpenei dagozkien, ekitaldi bakoitzeko koefiziente horizontala aplikatu eta gero. Banatu beharreko baliabideak kalkulatzeko prozesua honako hau da: lehenik, aldundi honek bildutako zerga itunduak hartzen dira eta interesak gehitzen zaizkie; ondoren, BEZk ordeztutako sarrerak kentzen dira (Gipuzkoari dagozkionak), eta ateratzen den emaitzatik lurralde historikoak EAeko zenbateko osoaren gainean aipaturiko koefizientea aplikatuta ordaindu behar dituen kenkari hauek kentzen dira: kupoarenak eta ekarpen orokor nahiz berezianak. Emaitza Gipuzkoak udalen eta Aldundiaren artean banatzeko dituen baliabideak dira. Banaketa horretan Gipuzkoako udalek portzentaje jakin bat jasotzen dute, 1997. urteaz geroztik aldatu ez dena: baliabideen %54,24. Portzentaje hori aplikatu ondoren, udalen artean banatu beharreko zenbatekoa lortzen da. Kopuru horrek, dena den, hainbat zuzenketa ditu: batetik,

Los recursos disponibles a lo largo del periodo han pasado de los 86.937 millones de pesetas de 1997 a 111.515 millones en 2000. Estas cuantías representan menos de un tercio de la recaudación por tributos concertados.

Al igual que pasaba con la comunidad autónoma con respecto al Estado, existen diferencias entre la parte recaudada por Gipuzkoa respecto al total y el índice de aportación correspondiente y que explican las variaciones de un año con respecto al anterior de los recursos disponibles. En caso de que la diferencia sea positiva se generan recursos a favor de Gipuzkoa ya que, con respecto a los otros dos territorios históricos, ha recaudado más de lo que aporta a las cargas generales. Si la diferencia es negativa hay una pérdida de recursos. Según recoge el cuadro 8.18., el porcentaje que representa la recaudación guipuzcoana sobre el total de los tributos concertados recaudado en la CAPV ha sido superior al índice de aportación que le correspondía en los tres primeros años del periodo, y únicamente en 2000 cambia de signo y se torna negativo. Es decir, esta diputación ha aportado en mayor proporción que su recaudación en el último ejercicios, por lo que ha sufrido una pérdida de recursos.

8.2.2.4. EL FONDO FORAL DE FINANCIACIÓN MUNICIPAL

Si a los ingresos de cada territorio se detrae la cuantía que han de pagar por cupo y aportaciones se obtienen los recursos de cada territorio. Estos recursos han de destinarse a la financiación de los distintos municipios y a la gestión propia de cada diputación foral. La repartición de los recursos entre los distintos municipios se hace a través del Fondo Foral de Financiación Municipal, siendo su cálculo dependiente de la normativa foral de cada territorio histórico.

El Fondo Foral de Financiación Municipal de Gipuzkoa viene recogido en el cuadro 8.19. para el periodo 1997-2000. Las cuantías son las correspondientes al Cupo y a las Aportaciones una vez aplicado el coeficiente horizontal de cada ejercicio. Así, para el cálculo de los recursos a distribuir se toman los tributos concertados recaudados por esta diputación, se le añaden los intereses y se le detraen los ingresos sustituidos por IVA que corresponden a Gipuzkoa. A este total se restan las deducciones que están compuestas por las cuantías correspondientes al Cupo y a las Aportaciones, tanto general como específicas, que ha de abonar el Territorio Histórico calculadas aplicando dicho coeficiente sobre el total correspondiente a la CAPV. El resultado son los recursos del Territorio a distribuir entre los municipios y la Diputación. En este reparto es destinado a los municipios guipuzcoanos un porcentaje determinado que desde 1997 es el 54,24% de los recursos. Una vez aplicado dicho porcentaje se obtienen la cuantía a repartir entre los municipios. A dicho

CUADRO 8.19. TAULA
Udal finantzaketarako foru fondoak. Udalek duten partaidetzaren kalkulua
Fondo Foral de Financiación Municipal. Cálculo de la participación de los ayuntamientos

KONTZEPTUA	CONCEPTO	1997	1998	1999	2000
1. Zerga itunduak	Tributos Concertados	320.719	369.092	402.497	432.002
2. Interesak	Intereses	40	42	31	49
3. BEZk ordeztutako sarrerak	Ingresos sust. por I.V.A.	17.704	20.101	22.041	23.413
4. Banatu beharreko baliabideak (4=1+2-3)	Recursos a distribuir (4=1+2-3)	303.054	349.033	380.486	408.638
5. Estaturentzako Kupoa	Cupo al Estado	36.173	40.514	38.323	51.503
6. Eusko Jauri-ren aldeko Ekarp. Orokorra	Aport.Gral al G.Vasco	112.027	134.385	149.910	161.440
7. Ertzaintzaren finantzazioa	Financ. de Policía Autónoma	18.069	18.791	19.946	20.200
8. Gizarte Segurantzaren finantz.(E.J.)	Financ. Seg.Social (G.V.)	64.840	74.594	84.066	87.968
9. Gizarte Segurantzaren finantz.(FF AA)	Financ. Seg. Social (DD FF)	5.255	5.759	5.818	9.649
10. LHLko 22.3 art.ko politiken finantz.	Financ.Pol. Art. 22.3 LTH				238
11. 3R planaren finantzazioa	Financiación 3R	76	-118	-56	
12. Inbertsio estrategikoen fondoak	Fondos Inversiones Estratégicas	2.028	2.067	2.083	654
13. Eskumen berrien finantzazioa+FEGA	Financ. nuevas competencias + FEGA		1	75	81
14. 1997ko eskumen berrien finantzazioa	Financ. nuevas competencias 1997	19	196	214	244
15. Kenkariak, guztira (15=5+6+...+13+14)	Total Deducciones (15=5+6+...+13+14)	238.486	276.189	300.379	331.977
